


2.002

LEITZA 2002


Tiburtzio Donearen Pestak



Abuztuak 10-15

JOSE MARI ZABALETA ZUBELDIA

PLAZAOLA
...zkia.



PLAZAOLAKO AZALA

2002ko Plazaola aldizkariko azalaren lehiaketan parte hartu duten margolariak honako hauek izan dira:

- > Joxe Mari Zabaleta
- > Estitxu Caballero
- > Leire Karrera
- > Axe Astitz

Eta gazte lehiaketan berriz Aiora Astiz.

Irabazle izan diren Estitxu Caballero eta Joxe Mari Zabaleta ez eze, partehartzaile guztiei ere ZORIONAK eta jarraitu margotzen.

Tiburtzio Donearen pestak

AGURRA

Kaixo herritarrak:

Hementxe ditugu berriz ere pestak! Denbora azkar asko igarotzen da!

Azkar bai baina, urte hau ere ez da makala izan geure ustez. Oso mugitua eta eginkizunez betea joan da. Eginbehar batzuk osatu eta bete dira, edo betetzear daude behinik behin. Kiroldegiak, udaletxeko berritze lanak, trenbideak adibide gisa balio bezate, baina beste batzuk oraindik ere buruhauste bat baino gehiago emango digute, Maxurreneko Kultur Etxeak kasu. Dena ikusiko da eta eginahalak eginenez gero, exari exarian lortuko ditugu.

Pesta batzordearen eginahala ere, horixe da bada: ahalik eta pesta politenak eta erakargarrienak antolatzea. Eta horretantxe saiatu gara, ez izan zalantzarik! Urteroko gisan, aurten ere berrikuntza xume batzuk sartu ditugu, baina alditik aldira zailagoa da hori lortzea. Guk gerok esatea hain ongi ez badago ere, hain dira pesta bikainak, gure herrikoak! Eta hori herritar guztiok lortzen dugu: egitarauak aparte utzita ere pesta-giroa jartzen badakigulako! pesta egiten badakigulako! eta aldi berean etxetik kanpo dauzkatenetaz oroitu eta euskal presoak hemen, gure herrian, etxean, gurekin behar ditugula erabat aldarrikatzen dugulako.

Ondorengo egunotan bada ze ikusia, ze ikasia, ze dastatua, ze dantzatua, ... eta baita ze adierazia ere.


Beraz, egun apart hauetan ongi eta lasai ibili,

zintzoak izan

eta batez ere euskaraz mintzatu eta bizi!!

GORA TIBURTZIO DONEAREN PESTAK!

GORA LEITZA!



LEITZAKO UDALA eta AURRERA K.E.-ak

PESTA ZORIONTSUAK GORA DIZKIZUTEN!

Leitzako jaiak 2002

Abuztuak 3 larunbata



E G I T A R A U B A N A K E T A

16.00tan kalez kale PLAZAOLA aldizkariaren banaketa egingo da trikitalari, ziztulari, soinulari eta animatzen dien guztik lagunduta.



Tiburtzio Donearen pestak

Abuztuak 4 Igandea

.....
U M E E N E G U N A

8.00tan Diana.

10.00etan Txirrindulari eskolakoak industrialdean ibiliko die.

10.30tan Meza Nagusia Korporazio Ttikiaren agintaritzan eta ondoren txupinazo ttikia.

11.30tan Umentzat pesta plazan:

Pilota eskolakoen pilota partiduak.

Aizkolari gaztetxoak.

Jokoak: zaku-saltoa, soskor biltzea...

Puzgarriak: goizez

(11:30tatik 14:30tara) eta

arratsaldez (16:00etatik

19:00tara).

17.30tan AURRERAKO Dantzari
Ttikien saio bikaine plazan.

19.00tan Danborrada plazatik atera
eta herrian barrena.

20.00tatik 24.00tara
TRIKIDANTZ taldearekin
dantzaldie plazan (tartean
atsedenaldia izanen da).
Buruhandik ere bertan ibili-
ko die umeen atzetik.



Leitzako jaiak 2002


Abuztuak 10 Larunbata

PESTA BEZPERA

11.00tan Koadrilen arteko
Herri Kirolak
plazan.

14.30tan Kirolarien eta
jubilatuen
bazkariak.

18.00tan Pestei hasiera
emanez, beti
bezela
udaletxetik
txupinazoa
botako da.



SXSXSXSXSXSXSX....PUM! GORA SAN TIBURTZIO!

Ondoren Plazaola aldizkariko azalaren irabazleei sari ematea

Eta gero, **INCANSABLES** txarangak,
ERRALDOIen konpartsak eta
BURUHAUNDIAK herriko
txokoak animatuko dittue
nahiko dantza eta laisterkaldi
egiteko aukera emanez.

22.00tan Suzko Zezena plazatik atera
eta betiko ibilbidean zehar.

00.00tan **IZOTZ** musika taldearekin
plazan dantzatzeko aukera
ederra.




ORDEZKOAK ERE HELDU ZAIZKIOA INCANSABLEEEI

Tiburtzio Donearen pestak

Abuztuak 11 Igandea

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

- 8.00tan Diana. Zitulariak alde zaharreko buelta egingen dute eta Dultzaineroek berriz Amazabal auzoa.
- 9.00tan Entzierroa eta zezenak plazan.
- 10.30tan Meza Nagusi kantatue udal ordezkari eta ezpatadantzari.
- 12.00tan Plazako frontisaren mendeurrenaren ospakizuna eta Abel Barriola txapeldunari omenaldia; bide batez, baita Aurrerako Pilota Eskolari ere.
- ondoren Ezpatadantza saio paregabea.




- jarraian Pilota partiduak.
- 18.00tan Zezenak plazan.
- 19.00tan
- Euskal Herriko Harri jasotzaileen kintopeko txapelketako finala.
 - Aizkolariak: Boxeka-Minttorla.
 - Harri jasotzaileak: Perurena aita-semeak eta Josetxo Urrutia.
- 22.00tan Suzko Zezena keia dariola.
- 00.00tan GAUBELA taldearen doinuekin dantzaldia plazan.

Leitzako jaiak 2002

Abuztuak 12 Astelehena

PESTA BIGARRENA

- 8.00tan Diana egune goiz goizetik animoso hasteko.
- 9.00tan Entzierroa eta behiek plazan ikusi nahi dittuenantzat.
- 11.30tan Sukaldari on, txar eta erdibidekoen paella lehiaketa (ikus oharretan). Ordu berean, Erraldoiek beren dantzak eskeiniko dizkigute.
- 12.00tan Duo Konsonáns musika melodikoa entzuteko aukera plazan.
- 18.00tan Behiak plazan.
- 19.00tan Urteroko legez, **AURRERAKO** Dantzarien ikuskizun paregabea.
- 22.00tan Suzko Zezenan aurretik, atzetik edo ingurun laiterkaldie.
- 00.00tan **ETZAKIT** taldearekin gozatzeko unea.



ERRALDOIAK ERĒ LIGATZEN!



Tiburtzio Donearen pestak


Abuztuak 13 Asteartea

.....
P E S T A H I R U G A R R E N A

- 8.00tan Diana. Zitzularik betiko ibilbidea egingo dute.
- 9.00tan Entzierroa eta zezenak; beti bezela plazan, eskapatzen ez badie behintzat!
- 10.00tan Txirindulariak zirkuitoan.
- 11.30tan Isaac Jimenoren zetreriako erakustaldie plazan.
- Ondoren ORBELA otxotearen emanaldia.
- 16.00etatik 19:00tara Puzkarriak igerilekuan.
- 18.00tan Behiak plazan.
- 19.00tan **Bertsolariak:**
-Sebastian Lizaso
-Anjel Mari Peñagarikano
-Sustrai Kolina
-Maialen Lujanbio
Gai jartze kontutan herriko bertsozale taldea.



HOLA AIXE, ZEZENIK GABE!



ZENEI KENDU OTE DIOA UME GAIXOA?

Ordu berean ASEGARCEK antolatutako pilota partidu profesionalak Amazabal pilotalekuan.

22.00tan Suzko Zezena txinpartak dariola.

00.00tan M-n EZTEN taldearekin dantza saioa, hemen izango die ta!

Leitzako jaiak 2002

Abuztuak 14 Asteazkena

K O A D R I L E N E G U N A

8.00tan Diana. Ziztularik betiko buelta eta dultzaineroak berriz Patxi Arrazola.

9.00tan Entzierroa eta behiak plazan.

11.30tan Pilota partiduak plazan.

12.30tan Koadrilak plaza inguruan bildu eta poteoan hasiko

dira txarangarekin batera, bukatu berriz noiz?

14.30tan Herri Bazkaria Plaza Zaharrea eta ondoren kantatu, dantzatu, deskantsatu... nahi den guztia!

18.00tan Zezenak betiko tokin.



TXARANG "EROAK" TOKI EARREA JOAN DIE ESKERA



19.00tan Euskal Karaokea umeentzat. Gora, gora, gora, gora JEI JEI JEI!

22.00tan Suzko Zezena plazatik hasita.

00.00tan FUERZA LATINArekin gerriondoa ongi astintzeko aukera.

Abuztuak 15 Osteguna

BIKOTE ETA EZKONDUEN EGUNA


8.00 tan Diana. Zitzularik ez dienez aldatzen, beren bidea egingo dute.

9.00tan Entzierroa eta zezenak; ezkonduentzat, bikoteentzat eta nahi duenarentzat.

11.30tan Herri kirolak:
Harri jasotzailea:
Mikel Saralegi.
Aizkolarik
Iparraldeko jokoak: Andres Arbenoiz.

14.30tan AURRERA K.Eko bazkideen bazkaria Aurreran bertan eta lehengo zuzendaritza batzordeari omena.

18.00tan Bikote eta ezkonduen entzierroa eta behiak plazan.



APROBETXATU, AZKENEKO ENTZIERROA DA ETA!



19.00tan Bikoteen Ingurutxoak.

22.00tan Azkeneko aldiz, Suzko Zezena

00.00tan HUAPANGO mariatxiarekin
mejikanak
dantzatzeko aukera
bikaina.

ondoren PESTEN BUKAERA. Labetxeko
atarian hasi eta buka.
OHHHH!

Leitzako jaiak 2002

SABADO, 3 DE AGOSTO

REPARTO DE PROGRAMAS

16.00: Reparto de programas.

DOMINGO, 4 DE AGOSTO

DÍA DEL NIÑ@

- 08.00: Diana.
10.00: Ciclistas en el polígono industrial.
10.30: Misa Mayor presidida por la corporación infantil.
A continuación: Txupinazo de la corporación infantil.
11.30: Juegos e hinchables;
-partidos de pelota
-aizkolaris pequeños
17.30: Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera.
19.00: Tamborrada.
20.00: Trikidantz hasta las 24:00 horas.

SABADO, 10 DE AGOSTO

VÍSPERA DE FIESTAS

- 11.00: Herri Kirolak.
14.30: Comida de los kirolaris y de los jubilados.
18.00: Txupinazo. Acto seguido se hará entrega del premio a los ganadores del concurso. A continuación la txaranga INCANSABLES, la comparsa de gigantes y cabezudos junto con los gaiteros y chistularis darán la vuelta al pueblo.
22.00: Toro de fuego.
24.00: IZOTZ.

DOMINGO, 11 DE AGOSTO

DÍA DE SAN TIBURTZIO

- 8.00: Diana.
9.00: Encierro y vacas en la plaza.
10.30: Misa Mayor cantada con la presencia de la corporación y los ezpatadantzaris del Aurrera.
12.00: Celebración del primer centenario del frontis de la plaza, homenaje de ABEL BARRIOLA y agradecimiento a la Escuela de Pelota del Aurrera por su trabajo.
A continuación: Ezpatadantza.
Después: partido de pelota.
18.00: Toros.
19.00: Final del campeonato de harrijasotzailles del País Vasco, en la categoría "kintopeko".
Después: aizkolaris y harrijasotzailles del pueblo.
22.00: Toro de fuego.
24.00: GAUBELA.

LUNES, 12 DE AGOSTO

SEGUNDO DÍA DE FIESTAS

- 8.00: Diana.
9.00: Encierro.
11.30: Concurso de paellas.
12.00: Música melódica a cargo del Duo Konsonáns.
18.00: Vacas.
19.00: Dantzaris del AURRERA.
22.00: Toro de fuego.
24.00: ETZAKIT.

MARTES 13 DE AGOSTO

TERCER DÍA DE FIESTAS

- 8.00: Diana.
9.00: Encierro.
10.00: Ciclistas.
11.30: Demostración de ceterería a cargo de Isaac Jimeno.
A continuación: Ochote Orbela.
16.00: Hinchables en la piscina.
18.00: Vacas.
19.00: Bersolaris.
A la misma hora, partidos profesionales organizados por Asegarce.
22.00: Toro de fuego.
24.00: M-n ezten.

MIÉRCOLES, 14 DE AGOSTO

DÍA DE LAS COADRILLAS

- 8.00: Diana
9.00: Encierro.
11.30: Partidos de pelota en la plaza.
12.30: Poteo.
14.30: Comida en la plaza vieja.
18.00: Toros.
19.00: Euskal Karaokea.
22.00: Toro de fuego.
24.00: Fuerza Latina.

JUEVES, 15 DE AGOSTO

DÍA DE LAS PAREJAS

- 8.00: Diana.
9.00: Encierro.
11.30: Herri-Kirolak.
14.30: Comida de socios en el Aurrera y homenaje a la antigua junta directiva.
18.00: Encierro y toros.
19.00: Ingurutxo de las parejas y casados.
22.00: Toro de fuego.
24.00: Huapango.
A continuación: "Pobre de mí".

Tiburtzio Donearen pestak


Oharrak • Avisos

1. INCANSABLES txaranga goiz, atxalde eta gauero arituko da.
2. BURUHAUNDIK atxaldero txarangarekin aterako dira.
3. UDALAK ez du behiekin gerta ditezkeen istripuetan erantzunkizunik izango.
4. Behietan dabiltzenei ihesbidea errazago egiteko barreren gainean ez daiteke inor jarri.
5. EGITARAUA borondatearen truke banatuko da, bai Udaletxean, liburudendatan eta tabernatan ere.
6. AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joana nahi duenak, txartelak abuztuaren 13-a bitartean izango ditu Torrea eta Txoko tabernan.
7. SUZKO ZEZENaren ibilbidea hauxe izanen da: Korte eta Torre arteko estarta, Txatxuneko atzea, Malkorra eta Korrenea arteko estarta, kalean behera, Etxe Txuri eta Arritxenea Herriko estarta eta plaza bitartekoa.
8. Udala ez da suzko zezenarekin gerta litezkeen erreketen edo bestelakoen erantzule egingo.
9. GOZOKIAK atsaldeko ekitaldia bukatutakoan banatuko dira egunero.
10. "PAELLADA" LEHIAKETArako arauak: bakoitzak bere sua eraman behar du, horretarako osagaiak ere norberak eramanez noski. Paelladarako nahita ezko osagaia arroz izanen da, noski eta hortik aurrera bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren ariora. Epai-mahaiak hartuko du erabakia.
11. Azken urte hauetan maldan behera doan gaueko INGURUTXOA suspertzeko saio egingen da. Astelehenetik astearterako gau horretan joko da plazako musika bukatutakoan. Parte hartzeko gonbitea egiten da. Ia txukun-txukun ateratzen zaigun!
12. Abuztuak 6tik 18ra, Maxurrenean, Maria Uriarteren landare eta lore lehorren erakusketa zabalik egonen da, jai eta aste, arratsaldeko 7etatik 8:30etara.
1. La charanga INCANSABLES saldrá todos los días
2. Los CABEZUDOS saldrán todas las tardes junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El público asistente a las vaquillas no debe sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huída de los corredores.
5. El PROGRAMA DE FIESTAS se repartirá a cambio de la voluntad.
6. Todo socio del Aurrera que quiera asistir a la comida de socios deberá adquirir su entrada antes del día 13 en Torrea o en el Txoko.
7. El recorrido del TORO DE FUEGO será el de todos los años.
8. El Ayuntamiento no se hace cargo de las quemaduras u otros percances que se puedan producir con el toro de fuego.
9. Después de las actuaciones de las tardes se repartirán caramelos.
10. Normas para la PAELLADA: cada cual deberá llevar su hornillo, y por su puesto los ingredientes para preparar el plato. Habrá jurado.
11. Este año se hará un intento de recuperar el INGURUTXO de la noche que estos últimos años está en declive. Se tocará la madrugada de lunes a martes, después de que finalice la música de la plaza.
12. Del 6 al 18 de Agosto exposición de Maria Uriarte sobre flores secas, en Maxurrenea, de 19:00 a 20:30 horas.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ARGITARATZAILEN OHARRAK

1. PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ARGITARATZAILERAK EZ DUTE BERATAN KALERATZEN DIREN IDATZI ETA ERITZIEKIN ADOS EGON BEHARRIK.
2. IDAZKIEEN EGILEEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIZKIETE ARGITARATZAILERAK, SOR DAITEZKEEN LEGE ARAZOAK BERAIEN ERANTZUNKIZUN IZANEN DIRELARIK.
3. GURE ESKERRIK ZINTZOENAK ALDIZKARI HAU OSATZEKO BEREN LANAK GUREGANATU DITUZTEN IDAZLE GUZTIEI. NOLA EZ, AZALEKO LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN GUZTIEI ETA ARGAZKIAK IUTZI DITUZTENEI ERE MILA ESKER.

Leitzako jaiak 2002



EHUN URTE, BAI! EHUN!

ZER OTE DA HALABEHARRA?

Lehengo batean udaletxeko artxibategian dokumentu batzuen bila genbiltzela, kutxa horietako bat, holaxe, besterik gabe hartu genuen, "zer ote dago hemen?" galdezka. Jo eta, plika bati eskua bota eta 1902.urteko idatzia zela ageri zen azalean. "Jontxo! orain dela 100 urtekoa alajaina, mende bete!" "Honetara ezker zeri buruzkoa den ikusi beharko dugu bada, ez?" Eta urtearen ondoren *Construcción del frontón de piedra en el juego de pelota zioen*. "Ixo, begira, plazakoa izanen da hau!" "Joas! Ongi ikusi behar dugu hau! Hala bada, aurten mende hurrena izanen da!"

Eta halaxe da! Aurten, 2002.urte honetan, 100 urte dira, Leitzako plazako pilotalekua berri eta egun duguna eraiki zutela!

Goian aipatu dugun plika horretan, besteak beste *Proyecto de construcción de un frontón de piedra en el juego de pelota de la villa de Leiza* dago jasota. Proiektuarekin iada, 1901.urtean hasi zirela dirudi, bere horretan baldintza tekniko eta ekonomikoak, aurrekontua eta planoak zehaztuta datozelarik. Lanak dena den, hurrengo urtean burutu zituzten, hots 1902.ean.

Esan bezala, plazako frontisa, Aurtzikene edota Ozparrun inguruko harriaz egina izan behar du, bostetik hirutan erreka hondar garbiaz, bostetik batean karea *cal apagada oportunamente*, eta azken bostena Zumaiako porlanaz conservado sin humedad, prestatutako morteroa erabiliz.

Frontis "berria" eraikitzen hasi baino lehen ordea, lehenago zegoena bota behar izan zuten (aurrekontu honetan behinik behin *derribo del frontón actual* dio) eta hemendik, balio zuten harriak baztarretako paretak egiteko erabili, puntaz punta, osokoak egin ere, bere eserleku eta guzti. Geroztik eginak dira Txubia eta Petrorena aldeko eskailerak. Beraz hemendik ondorioztatzen dugunez, lehendik ere bazegoen herriko plazan, pilota-jokorako frontonik. Egia esan, 1745.urtean Markillos parajea,

egun udaletxea kokatuta dagoen parajea hain zuzen ere, herriko etxe berria eraikitzeke kausetako bat, besteak beste plaza eraiki ahal izatea zen, Txatxunear (lehenago udaletxe zaharra) ez omen zegoelako horretarako aukerarik, bistakoa denez. Gauzak zuzen adierazi behar badira gainera, "kontzejuko etxea" esan behar litzateke, oraindik ere, garai hartan Areso eta Leitzela elkarrekin baitzeuden udal bakarra osatuz, 1770. urtean bakoitzak bere bidari bakarka ekin zion arte. Harira itzuliz, aspaldi samarrekoa da, gure pilota zaletasun hau beraz! Erro erroraino sartutako zaletasuna izan ere! Herriko etxe berri bat eginarazteko hainakoa, ikusten denez.

"Baina nolakoa ote zen lehenagoko hura? Alegia lehenago frontis zaharra?" Badirudi, gaur egungoa egiteko burutu zen subasta egunean bertan datatutako alegazio batean ikus daitekeenez, hain zuzen ere Ramon Gogorza izeneko batek egindakoa berau (gizaseme hau Aieneko Sebastian Gogorza Gamioren aita zen), lehenago frontis hura ez zela berri hau bezain altua eta hasieran egitekoa zutena ere ez zela honelakoa, *a la poca o corta distancia que se a de emplazar dicha pared, y dada la altura que se le piensa dar viene a privar a la casa propia del exponente (Aienea) de la vista y aun de la luz, que ahora tiene, lo que está el suscribiente en el caso de evitar*. Beraz etxe horrek bazuen argitasunik ordu arteraino, esan daiteke hortaz frontis hura baxuagoa zela, atzeko etxeari itzalik egiten ez zion modukoa alegia. Herritar honek dioenez gainera, haserako proiektua ere bestelakoa omen zen eta honen arabera, *en la forma que no prive del derecho de luces y vistas* egiteko asmoa zuten. Gerora erabaki izanen zuten gaur ezagutzen dugun eta hainbeste zaletasun sortu duen pareta hau eraikitzea. Lehengo hura, aditza dugunez, "xakea"zeritzan pilota mota jokatzeko pareta izanen zen, baxua, sake-harria erdian jarri eta burutzen zen pilota-joko hartarako, lekuko gisa, oraindik ere hortxe dago harri horietako bat Etxetxuriko atarian. Jakinahiak jakinahi, lehenago pareta hark ze itxura ote zuen argituko

Leitzako jaiak 2002

zigukeen daturik, krokisik edo bestelako argi-biderik ez dugu aurkitu, aztarrika ibili garen arren. Norbaitek horren berri balu, esan beza, atseginez jakingo genuke bitxikeria hori!

Plazako zorua berriz, losazkoa jarri zuten, hobeki esan, berritu egin zuten. Lehendik ere halakoa omen baitzen. Geroztik, 1925.urtean zehazki, bota zuten porlana plazan, egun dagoen modutsuan. Eta urte honetan bertan ireki zituzten lehentxeago aipatu ditugun plazako eskailera horiek ere.

Berrikuntza hauen apaingarri modura, azkenik, frontisaren goiko puntan dagoen Leitzako herriko armarri eder horixe ere, orduantxe jarri zuten, (hantxe omen dauka, atzealdean, urteari dagokion 1902 zenbakia koskatuta, oraintsu ikusi berria duen lagun batek esan digunez). "*Orduan ere baziren esku-langile finak, beraz!*". "*Orain ez ezik, aldi hartan ere nola igoko ote zuten hara goraino, halako harri tzarra?!*". Kontuak kontu, 100 urte daramatza armarriak hantxe goian, frontisaren gainean, pilotan dabilzaneri, eta jostetan, eta aizkoran, eta begira, eta antzar-jokoan, eta dantzan, eta bertsoan, eta txaloka, eta kantari, eta zezenaren aurrean laisterka, eta lanean, eta aparkatzen, eta manifestazioan, eta... begira!

Eta guzti hau garai hartako leitzarrei zenbat kosta ote zitzaien jakin nahiz gero, plika honetan bertan ageri denaren arabera, frontisa, 4.095, 65 pezeta kosta zen eta zorua berriz (aldeetako eserleku eta guzti), 1.801,84 pezeta. "*Garai hartako mila duro eta gehiago!*" "*Ez zen broma izanen!*" "*Oraingo zenbat euro ote lirake?*" "*Auskalo! Nola nahi ere, asko!*".

"*Eta gauzak horrela, lan hauek egin zituen argina zein ote zen?*" Bautista Sukuntza Alduntzin izan omen zen lan hauek bere ardurapean hartu zituena, beti ere Julian Eizagirre arkitektu tolosarraren ikuskaritzapean. Bautista, elizerrako bidean, Ariñaldeko aldaparen hasieran dagoen etxearen, alegia Sukuntzanearen lehen-

go jabea zen, hots Petra, Seberiano,... eta haien aita. Hau argina zen.

Esanak esan eta kontuak kontu, aurten ehun urte dituela beraz gure herri hontaxeko plazako pilotarako paretak! Zenbat pilotakada hartu ote du? Edo galdera beste eran eginez, zenbat mutiko eta neskato kozkor aritu ote da pilotan, urte guzti hauetan? Jostetan hasi, txapa gain-gainera bota pilota eta potea arrasto ertzera justu-justuan, ttak! Tanto! "*Sakeak hogeita biiiiii, errestoak hiruuuuuu!*"

Ikusi besterik ez dago, Leitzako herriak zenbat fruitu bildu duen plaza honetan ernatuta, XX. mende haren azken laurden inguruko Bengoetxeatarren txapelak, eta XXI. gizaldi honen haserako Barriolarenak esate baterako. Eta txapeldun haundi hauen bideari jarraiki, urtez urte, pilotakadaz pilotakada lanean diharduten hainbat eta hainbat pilotari gazte, hezitzaile, laguntzaile, hortxe ari dira, egunen batean beren ametsak egi bihurtzeko egin ahaletan. Edo besterik gabe, gustukoa dutelako, nahiz eskuz, nahiz erremitez, jostetan aritzea ere agitz egokia da, baita begira egoteko ere, alperrontzat!


Dena den ziur, beste 100 urte igaro baino lehen, aurreko eta gaur egungo pilotari bikainak ez eze, beste asko ere izango ditugula! Noski baietz! Bejondeiela oraindainokoei eta hemendik aurrerako guztiari ere, zalantzarik gabe!

100 URTE! GIZALDI OSO OSOA!

Erabilitako plika zegokion lekuan jaso eta "*Orain akordatzen naizela, entzun dudanez, aurten ehun urte bete dituen leitzarren bat bai omen da, ez?*". Artxibategiko atea itxi eta eskailerak beheara "*Bai, neronek ere aditu dut. Kanpoan bizi omen da aspaldixkoan baina ez omen dauka bere sorderria ahazteko moduan*". Sarrerako atea itxi "*Edozer gauza ahazteko haina urte badira ba, nola nahi ere*". Plazara atera eta "*Hori edertasuna!*".

Tiburtzio Donearen pestak

Proyecto de nuevo fronton
para el juego de pelota de la Villa de
Leiza




BIXENTE GOIKOETXEA: LEITZAKO AZKEN AMERIKANOA

Aspaldi Leitzako kalean ikusita, ezaguna nuen ni baino zaharxeago zen mutil zabalsko hura. Sekulan berarekin hizketatu gabea nintzen, ordea. Eta hamasei urtez atzerrian bizi ondoren, etxera itzuli zela eta, berarekin estrainekoz solastu nintzenean, gaur egun nekez topatzen den gizon klasea aurkitu nuen: hiztun ederra, begiratua kararik kara, iriztiak ongi mamiturik bota eta bizitzeko aiherrak egoten dena. Bixente Goikoetxea Almorzak (1964), ez du Joxemari Lizarraga amerikanoak bezalako poltsa aberatsik egin, ezta, zoritxarrari ihesi, Miltxoko Fermin Zabaleta artzainarenak adineko gertakari latzik bizitu ere; baina, Ameriketara kasik bizitza erdia (eta erdirik hobere-na) eman ondoren, oroitzapenen pardela gainezka itzuli da, hango bizipuska jakingarriak nornahirekin partitzeko prest dagoela.

«Obei urtekin jun nitzen Ameriketara, ta urteik onenak an bota nizkin. Pena ematen ziek orrek e! Bai, alde batea bai: emen eon banitz, onezkeo ezkondu ta umekin baneon ni... »

Bixente, nolahi ere, Ameriketara jo baino hiru bat urte lehenago hasi zen abenturarako gogoia erakusten. Sei senidetan bigarrena, eta aurreneko gizasemea izaki, aita Juan Inazio zenak horretaraxe tentatu baitzuen. 1982. urtean, aitaren adiskide zen Telletxea donamaritarrak, basolanera

deitu zuen: Saint-André (Basses Alpes) izeneko herria izanzen zuen jomuga. Nizatik 50 kilometro goragoko mendi haietan ikasi zuen Bixentek zer den eskulana: pinu botatzen eta trunko zuritzen aritu zen, hagitz lan zakarrak biak ala biak ere. Esku finekoa baitzen, haragi bizitan edukitzen omen zituen, eguna joan eta eguna etorri. Eta harrituta egoten zen: lan har-



Bixenteren familia Urnietako Beatxaguru baserriko atetan, 1975 inguruan. Ezkereskuin: M^a Jesus, Edurne, Izaskun, Javier, aita Juan Ignacio zena, Josetxo, ama M^a Dolores eta Bixente.

Tiburtzio Donearen pestak



Hori bezalako "sheep camp" txabola batean igaro zituen Bixentek 24 hilabete hiru urtetan. Argazkian, 1999. urtean bisitari joan zitzaizkion adiskideak, ezker-eskuin: Asun Maritorena, Jesus Mari Mindegia eta Caparrosoko Jone

tan gustora aritzen zen jende larri franko eza-gutu baitzuen, gorpuzkeran bera baino askoz eskasagoak izanagatik ere, pinu zuritzen-eta puskaiz aisago moldatzen zirenak.


Bixenteren munduan zeharko joan-etorriak, ordea, ez ziren hasi besterik egin; Frantziatik itzuli eta hurrena, 1984. urtean, soldaduska non bete beharko eta Canarias jotzea tokatu baitzitzaion: «Ue nola urrutidaon, illabeterako oporrak ematen die, illebeta osoa emen pasatzeko; ta nik illebeta ori re kartzelan pasatu nin, kalabozon. Bai! Kauen! Pixkoat geiegi edan da, borrokan... Soldadu lagune borrokan eskallerak bera bota eta besoa puskatu zin. Etzekit karate kolpea eman nion edo —garai hartan Juan Esteban Ceballosekin karate ikasten aritzen baitzen Bixente— baño, dinbi danba dun dun! bueltaka erori uen ta... biok "a la cárcel": Bera aurrena ospitalea ta ue sendatu zenen ni "a la cárcel". Aurrena ongi, i barrenen, deus egin gabe, itzalen, eta kalabozon, leio ttiki batetik ikusten netien bestek, eguzkipen zerrik bezela izerditten ejerziziok itten ta: "qué de puta madre, au dek bizitzea!". Baño, irulau egun pasa, deus ittekorik gabe, ez telebisorik ez rebisterik eta, emateik il in bear dekela i! Lotan ere ezin egon ba,

24 ordun... Ta serbizion zeon ofizialen bat etortzen bazen ta ematen bazun lanik kanpora atetzeko, gustora ordun lan ori ittea!». Gauzak nola diren: geroztik, California aldeko Alcatraz kartzela ospetsua bisitatzan ere egona omen da, turista gisa, gure Bixente; orain berriro ikuskizun turistiko bihurtu omen dute eta, hainbeste gogo erratu atxiki dituen gotorlekua: «Leku politte dek Alcatraz, oso politte. Oain, an barrun eoteko eztek gozoa izango!»

Baina Bixente etzen geldirik egoteko jaio; bizitzaren bildur ez den arraza arraro horretakoa baitugu bera. Soldaduska burutu eta berehala, Canarias irltako hautsaldia sorbaldetik kentzeko astirik gabe ere, Ameriketarako saltoa prestatzen hasi zen. Californian bost urtez artzain ibilitako Lazaro Telletxea hasi omen zitzaion galdezka ordukoan, eta, badaezpada edo, aita albotik tentazale. Izan ere, aita Gaintzako Arrazti baserrian jaio, eta, ezinbestez, urte askoan artzain ibilitakoa baitzen, eta gero ere artzaintzaren harra zainetan zebil-kiona.

Ameriketara, *Western Range Association* delako agentziaren bitartez iritsi omen zen. Honetxek bideratzen omen ditu dauden

Leitzako jaiak 2002



Ez, ez da Leitzako plaza, Mountain Homeko hirigunea baizik

eskaera klase guztiak: artzain euskalduna edo peruanoa edo dena delakoa behar dela, agentzia berak deia jaso eta eskabidea egingo du. Gaur egun, berriz, Mongoliako artzainak ailegatzen ari omen dira erruz, Estatu Batuetara. Ongi ezagun du, izan ere, miseria non, hango jendea mugituko dela aisena inork nahi izaten ez dituen lantegietan aritzeko. Nolanahi ere, Bixentek dioenez, Peru aldeko artzainak «eztittuk euskaldunen aldera iristen, keba! Oain, peruanoak listoak dittuk e! Estudiatzen ta, alperrak batez e! Emengo jendea, estudiatu sekulan ez: igoal an berrogei urte egin eta bate inglesik ikasi gabe etorriko'ittuk. Eta peruanoak, ara iritsi orduko liburu arten aste'ittuk, inglesa ikasteko ta».

Bixentek aitortu didanez, Leitzako eskola profesionalean ikasi zuen ingles pizarra, gutxi izanagatik ere, asko balio izan zitzaion. Gerora, kostata baina primeran ikasiko zuen ingleseaz. Honatx zer dioen hizkuntzaren abentura hortaz: «Asieran itzeitten asi eta etzien tutik ulertzen iñork. Ta aik zeozer galdetzen zien neri ta nik ostiaik ulertzen ez. Azkenen, koaderno bat erosi, boligrafo bat, eta zer esan nai nun idatzi eta, benga, gero berak ere idatzi ta... Bestela, nik zeozer esan ezkeru etzien iñork deuse ulertzen!

Gero mendin ikasi nin, estudiatzen. Zortzi illebeta mendin itten netien eta gero bera jexten nitzenen, lau illebeta errin. Bein bildotsak eta, errin eskola. An lau illebeta in da, benga, berriz gora, ta ola pixkeka pixkeka artzen aste aiz, baño denbora bear dik. Bakik ze pentsatze zien nitzela askok? Kanadakoa. Idaho Kanadan mugan zeok, ta askok pentsatzen zien ni angoa nitzela. Ongi moldatu nittuen. Txarrena izate'k, izkuntza bat ikasten balin baabil, burun entzun, erdarara edo euskerara traduzittu, gero ik ze esan bear doken pentsatu, traduzittu inglesera ta berriz esan besteai. Lan oi dena in bear duk ire burun. Bein ya dominatzen asten aizenean izkuntza ori, ya aittu orduko bakik ze esan dien, ez daukek traduzittu bear, ta oi in arte izate'k lana. Baña izkuntz ortan pentsatzen asten aizenean, ya dominauta zeok. Baño denboa bear dek oi itteko, lau urte, bost urte. Nik lau urte bear izan nizkin e! Beste batzuk geio beste batzuk gutxio, beste batzuk sekula eztie asten. Ni, an lau urte nittula asi nittuen pentsatzen. Orregatik, esate'it: "aprende inglés o francés o ruso en treinta días", txorakerik dittuk, oi etzitekek, oi dena kontue dek. Dirue kentzeko artea besteik eztek. Izkuntza bat eztuk dominatzen izkuntza ortan pentsatzen asi arte».

Erreparatu dionak honezkero ikusiko zuen Bixenteren hizkera ez dela oso

Tiburtzio Donearen pestak


Leitzakoa, giputz aldera egiten duela; aita araztarra zuelako, batetik; eta, bestetik, ama Maria Dolores (azkeneko urteean ezongi samar dabilena), Urnietako Beatxaguru base-rrian jaioa duelako. Baina, etxeko sen horie-taz aparte, badu gainera, Idahoko bizkaita-rrengandik hartutako ukituren bat edo beste: «Garbi esango it: ni, amangatik ez balitz izan, oañik Ameriketara izango nitzen. Oain, damutu enak itten bate etorri naizela. Oso ondo bizitze'k emen be oain, da emengo jendeak artu naue ni, bueno, oso ongi! oso ongi! Emengo lagunek, eta bestek, ni baño askoz gaztegoak zienak eta, iru-lau kodarilla badie emen... oso ongi artu naue e! Espezial! Etzeok kejatzeik!».

Bixentek, hasiera hasieratik, Idaho estatura jo zuen, Mountain Home hirira, hain zuzen: ipar aldera, dena mendia (Trinity Moun-tains, House Mountains...), Canadaraino; hego aldera, berriz, dena desertu, Texas eta Mexiko-raino. Hara iritsi orduko hasi zen artzai: «Nere atteri ta artzai bizitza asko gustatzen zitzaion, baño neri batez. Arrek asko animatu niñun; baño enien etsitzen bakartasun artan, ta kontratua bukatu zenean, aiden ni andik. Iru urte in nizkin: errex esate'ittuk e! Gustatzen bazaik errex pasatze'ittuk baño gustatu ezik... Sekulen eniñun ardikin ibilli ta, ara jun nitzenen, nere burue an bakarta-sun artan ikusi ta... estudiatzeko edo zeozer euki ezik ola, ill ni! Enien ago-antatuko. Askok ezte agoantatzen: majiña bat jende ezautzen dit nik an iru urte in gabe jun dienak, asko gañea: Baztan aldeko pare bat eta... "au eztuk neetzat eta..." buelta!

«Bakar bakarrik eoten niñun. Asten bein jatekoa eo ekartzen zien, ta gero geio ikusi ez... Kaza pixkoat in, bildotsa jaten aspertu itte aiz ta... Benadon bat edo il bear. Amorraie gero, errekak bete betek eote'ittuk an, ta amorraie arrapatu ta jan, ta olaxe... 'Amor porpio' utsez bukatu nin, ta

gero're, beste aukerik enulako: edo an eon bearra edo España bueltatu; i ez baiiaz bueltatzen, bota itten abea».

Mendian zuen bizilekua ere ez zen oso gozoa izango: «'Ardi-kanpo' esaten die an (sheep camp): karro bat uen, Oesteko pelikuletan ta azaltze'ittuk ba, karromato oik, oixe ba, baño pixkoat modernogoa. Or bizitze aiz. Rulotak eztik balio an; Kalifornia aldean bai, baño an, Idahon, zenbait lekutan mandoakin muittu bear izate'i-ttuk: zortzi illebeta olako baten pasatzen nin. Ardik batetik bestea ibiltzen baitia, egun batzuk leku baten, gero beste batzuk beste baten ta, ola. Ongi prestatuk eotte'ittuk. Otz aundinak pasa ta gero, maiatzen aste'aiz, ta ikatzezko estufa bat



Bixente Goikoetxea eta adiskide bisitariak Bixenteren kamioi aurrean, Mountain Home inguruan. Kamioizarra, Kenworth markakoa,


Leitzako jaiak 2002

izaten nin, kozinatzeko ere bai... Gero, beti zaldi pare bat izate'ittuk».

Lanik haundiena, ordea, lau hankako piz-tiek ematen zioten. Piztitaz gauza harrigarriak kontatu dizkit Bixentek: bera batere ehiztaria izan gabe, ehiztaririk itsuenak txoratzeko moduko pasakariak gertatu baitzaizkio: «Sekulen artziki ikusi gabea nittuen, telebis-tan ez bazen. Eun baten, abiatu nak txabolatik eta, bide bat bazeok, pista bat. Eun artan esan nin: "bidea moztu bear dit". Ta bidelasterra artu ta, kaguen, piñu tarte baten ta, artzak kaka itten dun leku baten azaldu niñun: territorialak baitie, kaka pille olaxekoa, altuk e!, metro bat alture bai. "Ai ba la ostra, leku onean sartu nak ni oaintxe". Asten nauk goittik bera juten ta, antxe ateratzen zat artza, gorri bat! Ikusi niñun artzak eta beira beira... Nik ez riflerik, ez zaldirik, ostirik ez ta... Ikigoal eztek uste baño, pertsonan alden artzak azkar itten dik e!, korrika! Neegana etorri uen korrika, sei-zazpi metrora geldittu, ots batzuk in zittun, ta beste aldean jun uen korrika. Gero berriz eman buelta ta neegana... "Kauen la puta"... Ni geldi-geldi, olaxe, atzeraka atzeraka, muitzen muitzen... Ni andik bialtzen ai uen, baakik, ni atakatu gabe, ni bialdu, beldurtzen... Ta ordun,

mendi koxkor bat zeok, ta kaxko ure pasa nunen, buelta eman eta goittik bera, a ze ziztun abitu nitzen!, baño izarditan e! Oi uen beldurre! Ta ordun, urrungo eunen, riflea artu, leku bertara jun ta il in nien! Artza gaixoa! Oain pena ematen ziaik, baño ordun... Berak ni iltzeko aukera izan ta eniñun il, ta nik il bera, ! Antxe zeuken, benado, basauntze bezelakoa, burue, fresko freskoa, besterik ez, benau bat osoa jan zien. Ikusi re eniñun in. Berreun, berreun da berroetitamar bat kilo izango zizkin. Moztu nion eskumuturre, laguneidi ta eakusteko, il nula eakusteko...».

Hartzaren kontrako kazeriak ez ziren hor bukatuko, ordea: «Gero beste eun baten beste iru artz il nizkin... Oain enikek akatuko ezta katue ere! Etzekit zergatik baño... Batzutan artaldea jute aiz ta txikizioak ikuste'ittuk, ta maniak artze'ittok: "kauen!, urrungo eunen denak ilko dizkit" ta... Oain pena ematen ziaik...». Duela 15 bat urteko kontuak izanagatik, gizakia gizaki denetik naturarekin izan dugun espa hiltzaila ongi agerian uzten dute hitz sekulako horiek. Bidenabar esanda, gure uso eta basurde ehiztariek urtero berri berritik berpiztu eta mantendu nahi luketen espa, hain zuzen.



Anaia Josetxo eta Bixente beren errantxoan, bi ostrukaren artean. Ikusten al duzu non den hirugarren hegaztia?

Tiburtzio Donearen pestak

Izan ere, Europaren aldean, oraindik pizti asko izaten omen da Ameriketean, ugaztunak ez eze baita bestelakoak ere: «*suge kaskabelak, desierto alden, pilleka izaten die*». Eta, halere, cougar izenekoa izanen da denetan izugarriena: «*Cougar, oi dek puma bezela. Olako batek pisako dik... Bat il nin ta amaika oin euki zikean isats puntatik sur puntara, iru metro terdi edo. Oi iltzen zailego dittuk! Oi ardi tarten sartzen bazaik...*» Dena dela, ez hartz, ez suge, ez cougar: Coyote barrengabea da, zalantzarik gabe, oraindano Bixenteren bihotz hondoan gorrotorik zinezkoena bildu duen animalia. Honatx hari buruzko lezio zerbait: «*Elur motoak ikusi al dittok inoiz? Ba, elur asko dagoanen, coyoteak ezin korrituz ibiltze'ittuk, saltoka saltoka ibili bear die ta... Beste laun batek pistola bazun ta, bik elur-moto bana artuta, coyotei seittu, inguratu ta, bertatik bertara, dunba!, coyotea akatu. Baña orrek bai eztila errukirik ematen, coyotek. Oik bakik ze itten duen? Ardie ume itteko dagona, ernarie, orrengana jute'ittuk, ardin atzetik eraso, ta umea ateatzen zeioa bizik dagoan ardiai... Bazekie zer dagoan or barrun e! Umea jan, ta ardie bizik uzten die ortxe, odoletan. Coyoteai jostaketan ibiltzea gustatzen zaio! Earra dek e! Biaramonen ardi odol ustua pistolaz akatu bear. Oik, putaseme oik, bate errukik eztit izaten coyote oik akatu izateagatik. Urten eun ardi baño geio galtzen nittun piztik akatuta. Oain berriz, mastin zakurrak sartzen asi die artzaiek. Zuri-zuri aundi batzuk. Ta oik ardi tarten azten dizkie, ta ardi esnea edanazi ta olaxe. Ta oik ezttuk arditik atetzen, artalden anxe eote'k, beste ardi bat bezela, ta bera're zuri-zurie ardik bezela. Gue nausik zortzi bat zakur erosi zien ta bakoitzak bi milla ta bosteun dolar inguru patu zien, oi ia milloi erdi pezta dek e! Baño balio dik e! Seittun ateatze'k diru oi! Asko salbatzen die».*

Baina, Idahoko basapiztien mesederako, negu garaian gure Bixente Mountain Home hiriskara jaisten zen; gerora, artzain bizimodua utzi eta Euskalerrira bueltatu arteko denbora

guztian, bere bizilekua izanen zenera, alegia. Han, atzerri hartan pasako zituen bere bizitzako hamasei urte. Bada zerbait! Nolanahi ere, Basaburuko gure iskin hontan jende asko izan da Ameriketara are luzeago ere joandakoa, baita batere itzuli gabe bertan gelditutakoa ere: Joantxeneko Miel Joakinek, konparaziora, hogeitatu urte pasa omen zituen joan den mende hasieran; beste Goikoetxea batek, berriz, Ezkurreko Joxe Ramon "makillastarrak", 31 urte egin omen zituen Amerikako mendietan, eta denbora hartan guztian «*bate konpestu gabe*» etorriko zen¹.

Mountain Home, hamalau mila laguneko hiriska hura, Estatu Batuetako bigarren aire-base militarrik haundiena omen da. Eta ondorioz, biztanlegoaren parterik haundienak ere militarra izan behar. Gainerakoak, behizainak, artzainak, eta komertziozaleak: «*Giro ona izate'k*» dio Bixentek. «*Bakik, jaleo gutxi, militarrai egurra ematen baitie jaleotan ta sartu ezkeo... Obena, berak alde itten zunen, bere andre... joe! Irakeko gerra etorri zenean, Bush-ekin, George Bush zarra zenean... A ze giroal! Esango dit: oik itte'ittuk asko kanpora ezkondu, igoal jute'ittuk Asia aldera eo Filipinata ta... Ango emakumek igoal ezkontze'ittuk ba Ameriketean paperak itteko ta. Gero, pentsatze al dek! Irakeko gerrakoan, gizon askok abionakin jun bear basetara, ta andrekin an bakarrik. Diskotekak eta, denak neskaz beteak: asko orientalak eta, bero bero! Joe! Gizonak an gerran da andrekin larru jotzen». Eta hango adiskideek orain berrito jakinarazi diotenez, Afganistanen kontrako gerrarekin lehengo lepotik burua ibili omen dira.*

Idahoko estatu osoan bezala, Mountain Homen euskal etorkin asko bizi da. Eta, oro har estatu batuar guztiek bezala, haiek ere sistema metrikoaren arabera neurtzen dute beren herrimina: «*An, plazan erdi erdin, an zeok nik ikusi'ten ikurrin aundina ta Euskalerriko mapa. Geienak bizkaitarrak ittuen. Ta neegatik*

¹ Yoantxeneko Miel Joakin eta Joxe Ramon Goikoetxearen datuok, Patziku Perurenaren Leitzako errege erreginak liburuan aurkitu ditut; 97 eta 130. orrialdeetan, hurrenez urren.

Leitzako jaiak 2002

itzeingo bazuen, etzien "Bizente" esango, napa-rra esango zuen. Geienak aspaldi ara joandakoak izate'ittuk, Euskalerrian jaio, baño gero an ezkonduk eta. Euskeraz ondo moldatzen nittuen aikin; asieran, bakik, ulertzen ta pixkat asi arte lanak, baño gero ondo... Idahon bizkaitar asko, ta gero jute aiz California eo Nevada aldera, ta an dena naparra. Asteko, artzai jundakoak, ta gero an, bakik, bakoitzak bere negozioa: batzuk hotelak iriki, beste batzuk beste gauza ta olaxe bakoitza berean... Californian eta, baztandar asko, asko».

1988an, hiru urteko artzain kontratua bukatu eta gero, mendiko bakardaderik ez zuen lantegiren bat bilatzen hasi zen gure Bixente, kamionzale zoriontsu bihurtu zen arte: «Karneta dena ingelesez ikasi nien. Karneta ateatzeko astebete bear izan nien, astebete! Bost ejeko kamionana, emezortzi erruedakoa: liburuk artu, estudiatzen asi, praktiko pare bat in, da astebete. Emen berriz, bear dittuk bi illebete. An, teorikako examin bat itte'k, praktiko beste bat ta fuera. Ta kosta, kostako zitzaidan, kanbiora, amabi bat mille pezta, geio ez. Enpresa batentzat asi nittuen lanen. Aurrena, illebete pare baten, beste txofer batekin jartzen aue, kamionakin ongi ikasi arte, ta, gero, ikusten badie ongi abillela, bakarrik. Urte atzuk in ola ta gero neria erosi nin, da neria-kin. Ibili nitzen bi enpresentzat: aurrenekoakin emezortzi eun, ta etzetzien bate gustatu; ta andik aldein ta beste enpresa batekin asi niñuen, ta arekin denbora guzin: May Trucking Company izena zin. Frigorifikoa ibiltzen giñien geiena, jateko gauzak eta. Idahotik atera eta, berriz ere etxera allatzeako, illebete pasatzen zen, beti kargauta. Denen ibiltzen giñen. Ibilbide normalenak, oestetik estera: ozeanotik ozeanora. Asko, zera, Florida, California... Bata bestean beste puntan zeok ta! California, Idahotik, 2.000 kilometrota zeok. Emen, Cadizea jun ta etorri in beak 2.000 kilometro itteko. Biaje luzena uen: Seattle-n asi (Canadako mugan), an kargatu, ta Miamira: 6.500 kilometro dia, aste osoa juten ta beste aste osoa bueltan. Eunian 1.000 bat kilometro itten nituen, problemik izan gabe klaro! An, nai badek, 10 ordu dena segidun ittea badaukek (emen berriz, 9 terdi, tarten iru ordu laurdeneko deskantsue inda). Gero, zortzi ordu lo in ta gero, berriz jutea baukek, beste 10 ordun. Ta nik igoal eun batzutan ingo nizkin, 14 eo 15 ordu bolanten, tar-

ten 8 ordu lo iñez, karga garaiz entregatzeko. Ta oi legala dek an. Poliziak alere asko kontrolatzen dik. Pisatu ta ori, emen baño askoz geiago. An sartze'ittuk kamionan azpira ta, frenoak ta ondo dau-den ta, gauza asko ikusten dizkie an. Emen ez tie sartu're itten. Paperak, emen: paperak eta pape-rak... Emen takografoa den bezala an "blockbook" izate'k, rayakin da in bear dena, ta ue beiratzien die ta, listo, kamion azpira sartzen die. Koaderno bat bezala dek ori; eztek automatikoa, ta ik eorrek bete beak. Guk asko faltseatzen giñun! Bestela, emengo alden, kamionako lana an oso lasaie dek. Lana sobra zeok, poliziak paperik ez tik beiratzien ta tranpa ittea bazeok ta, egur baten ibiltzen giñen, batetik bestera, egur baten! Karretera, berriz, zelaie! Idaho ta Wyoming, pasa bestaldera ta, dena zelaie. España, ango alden, txarra dek kamionan ibiltzeko. An gozada bat dek! Ta gañea, limitea, emengoan alden, oso altu dek, 120 izate'k. Ta, Montanak, oain bi urte arte, limiteik ez tik euki: 150 ibili nai baitzen, iñork ezin zien ezer esan.

«Kamioi lanak bakartasun pixkoat badik baño gustora ibiltzen niñun. Truck stop (kamion gelto-kiak) izate'ittuk ta, emengo aldin diferentek izate'ittuk, denetik bazeok an: zinek, dutxa, guzie. Lot lizard izenekoak ere izate'ittuk, putak eta, denetik... Penagarria izate'k. Amalau urteko neska gazteak igoal, drogan sartuta. An ilegala dok prostituzioa, ta olako lekutan ibiltze'ittuk, an etxeik etzeok, emen bezelako putetxeik etzeok an. Nevadan bakarrik zeok legal Amerika osoan. An, Nevadan, Mustang Range izeneko lekua bazeok; mustang, zaldi klase bat dek. Reno aitzea izango'ek? Reno ondoan zeok ura. Californiko mugan zeok Mustang Range ori».

Josetxo anaia, Bixente baino pare bat urte geroago iritsiko zen Ameriketara, 1987 inguruan. Hura ere artzain joanen zen, baina ez Idahora, Californiara baizik. Beraz, Josetxo Californian zegoela, Goikoetxea anaiek ez zuten kasik elkar ikusteko aukerarik izan. 1991-92 inguruan ordea, anaia gaztea zaharrenagana, Idahora bildu zen, han ere artzain jarraitu bazuen ere: «Lasaie da Josetxo, nik baño askoz e lasaiago artzen zetiek gauzek; pazientzie askoz geiago dik nik baño, ta urte asko egin zin artzai.

Liburtzio Donearen pestak

«Menditik jetsi ta rantxoa erosi bitarten, apartamentu baten bizi giñen. Ordun, bin arten erosi genin rantxoa itteko terrenoa, 1996an eo olakon bat. Terrenoan bille asi giñen, ta terrenoa erosi ta etxea in genien. Pena izugarri oain ori saltzea. Ue erosi dunak, oain zaldik zeuzkek an. Etxe bakarra uen, pisu bakarrekoa, an denak ala izate'ittuk. Pena emate'ziek, bai. Etxe arrek eukiko zizkin 80-90 bat metro koadroa, baño terrenoak askoz geio: amar-amaika akre. Akre bakoitze 10.000 metro koadro izate'ittuk. Antxe gelditu zen ue dena! Erri bertatik kilometro pare batea zeok ure, autopistatik ondo-odndoan. Leku lasaie, oso ona, "de primera"».

«Artzantza utzi zuenen, Josetxo kostruzioan asi zen, ta bera rantxoan izaten zen ni kamionakin ibilli bitarten. Ordun abestruzak jarri genizkin. Jende asko gelditze uen abestruzak ikusten. Lau pareja abestruz aundi euki genizkin. Nik gutxi ikusten nizkin ta lan geiena Josetxok itten zin. Pareja asko izatea oso zalle izate'k. Gañea, etzetzian oso ondo atera: aragi prezioa're jetsi zen gero ta... Arroltza, bi unetik bat eo jartzen die pareja bakoitzak. Baño, tenporada izate'k: martxoan aste'ittuk eta abendu arte eztittuk gelditzen. Arroltzak kendu ta inkubadoran jartzen genizkin, umetako. Gero umek, andik 38-40 eunea sortze'ittuk; gero aiek azi ta saldu, berrogeitamar bat kilo arrapatzen dunian. Ortik gora ya ez, prezio gutxio izaten baitu. Arrak iru urte bear dizkik larrutan asteko, ta emek pare bat urte; ta gaztek erosten badittuk, itxoin in bear dek, aik umatzen asteko... Oain, abestruza kuriosa izate'k: pareja bat artze'ie ta geio ez tie nai izaten, zalla izate'k arra bati bi eme botatzea. Ill ingo likek bigarrena. Oso monogamoa dek. Oso animala politta'ittuk».

Gorago esan bezala, Bixente ez da Euskal Herrira itzuli izanaz damu; etxekeongana itzultzea baitu, azken buruan. Baina, Ameriketan, zenbait besolagun eta berak eraikitako errantxoa ez eze, oso gustukoa duen bizimodu bat ere utzi du, berak «kapitalismoa» deitzen duena. Halere, azken garai hontan hemen ere sistema beretsua gailentzen ari delakoan dago: «Bai, ultimamente, ondo pentsatu ezker, ala gertatze'k, eta gero ta geio». Halere, oraindik hangoaren parera iristeko omen gaude: «Kapitalismoak gauza on bat

badik: an itte'ie, al dala, gobernua kendu erditik. Paper kontuetan, errexo izate'k, emen baño. Konpazio batera, zeozer bear dek, ezta? Kamionakin asteko, nik kamiona bear nin: karneta atera, ta seittun atera nin. Kamiona erosteko dirua bear dek: prestamo bat artu nien, ta erosi nien kamiona. Ta orrekin naiko nien, listo! Emen ez, emen bear dek: "título de transporte, carta de transporte, carnet de conducir...!", oik denak bear dittuk! Oik denak an kendu itten dizkie erditik! Lana itteko modue zalla jartze'ie emen; an erreztasuna ematten die ta emen zalle. Negozion bat edo montatu nai badek, an errexago zeok emen baño, askoz e! Oain obeto zeok len baño, baño alare zallago dek.

«Oain, beste batzutan emen obeto're bazeok... Konpazio batera, ospitaleko gauze ta oi dena, emen askoz obeto zeok an baño: ango lotsagarrie dek ori! An dena pribatue dek. Ta bakik ze diruk bear dittuk!? Aberatsak bakarrik jute'ittuk an ospitaleta... "Seguroa erosi" esate'ie: bai, seguroa erosteko dirue bear dek!, ta asko eskatze'ie: seguroa erosteko gutxinez 200-250 dolar illen bear dittuk, seguroik merkena, familli osoa kubritzeko. Oi seguro txar batentzat; normala're ez!, txar batentzat! Eta 200 dolar bakik ze balio dun familli batei kentzeko? Ta bazeudek 900 dolarrekoak ta andik gorakoak e! Klaro, oi ez badaukek, bakik! Gero oi ire patrikatik patu bear dek... Ta oi patzeko diruik ez badaukek, patrikan ze diru eukiko'k ba, ospitalen operazio bat patzeko: batez! Oi lotsagarri dek! Guk seguru onak eta bagiñuzen, guk erositako klaro! Baño, bakik, gu bakarrak giñuzen, ez giñun familiik azitzeko eta... Dirue naiko ongi itten giñun ta... bakik, ongi moldatzen giñen. Bill Clinton ibili zen oi arreglatu nai en ta... etzien utzi, kongresoak eta, botaziotan eta beti galdu izan zien orren gañen. Baño oi lotsagarri dek, baten batek kanbiatu bearko'ik ori, bestela...».

Gorago esan dudanez, gaur egun topatzen ez den gizon klasea iduritu zait Bixente. Mutil xaloea, xalorik baldin bada, amerikarren jatorrasun petoa gogorazi dit. Halere, hango kumpulimenduak ez omen dira berdin banatzen: «An jendea oso lagune izate'k, lagunek itteko ta prest. Ta euskaldune izan ezkeo gañea, oso ongi artzen aue. Euskaldunak asko matte gattue an! Euskaldunenengatik etzeok kejarik, Idaho aldera jun

Leitzako jaiak 2002

ai ta, bo! Kalifornin e bai, baño Idaho alden geio gañea. Euskaldune baaiz, ongi etorrie izango aiz. Indioak izan ezik: indioak ez i, ez ni, ez euskaldune, ez inglesa, ez mejikanoa; indioak eztik iñor nai izaten. Oso razistak izate'ittuk. Idahon, reserbetan zeudek indioak. Ongi bizitze'ittuk aik. Nai duen bezela! Gobernuk dirue ematen ziek, indioak dielako, ze len bere terrenoa dena kendu zien ta... Oain etxe normaletan bizi dittuk aik e. Antxe, moskorkerin ibiltze'ittuk, bueltaka. Baño orren gañen be, problema aundie zeok: ze, i indioa aize-lako emate'ie bentaja guzik oain. Unibersidade baten sartu nai dek, ta! Gañeko jendeak in bear dik, "por mérito propio" sartu: estudio onak atera, nota onak atera... amar lagun sartzeko. Baño indio bat sartzen bada an, alperkerie besterik itten ez badu're, oi derrior artu bear due, amar oitako bat oi izango da. Ezin ezetz esan orrei. Ta ori gaizki inda zeok! Ta igoa eskribitzen e etzekik: oi gaizki zeok e!»

Etorkin euskaldunari ongi begiratzen bazaio, izan ere etorkin europarra delako izanen da; ez baita hori bera gertatzen herri hartako beste zenbait auzorekin: «Mejikanoak eta, or fronteran, ilegal asko korritze'ie, bertan zeok eta... Kriston razismoa zeok oin kontra, mejikanon kontra ta! Gorrik ikuste'izkie aik e... Baño, berak sartzen die e! Bazekie zerta datozten e!, nola dabilten mejikanok: arrapatu ta Mejikora bota ta urrungoan berriz agertze'ittuk... Seittun azaltze'ittuk: frontera oi kruzatze'ie, Río Grande eo kruzatzen die ta... Rantxotan ta lanen aitze'ittuk, ilegal modun, klaro. Normalen etortze'ittuk "gosek daudela ta famili mantentzeko etorri bear duela ta..." Batzuk itte'ie oi, baño, normalen etortze'ittuk eta diruk alkolan gastatu, andregaien bat, erdi putan bat billatze'ie, ta arekin dena gastatze'ie, ta kitto: Mejikon duen andrea ta lau ume an gelditze'ittuk. Ezkondu're igoa itte'ittuk or, paperak itteatik. Ta andrea euki Mejikon. Arraza oso matxiste izate'k mejikanoa: gizona tabernan ta andrea etxen ume zaintzen, ostia! Jende raroa dek ori».

Hain zuzen ere, Bixentek berak gorabeheraren bat edo izan omen zuen mexikarren batekin; baita, batere errurik ez zuela, poliziak atxilotu ere. Amerikako kalea ongi ezagutu ez eze, probatu ere egin baitu gure amerikano bizinahiak. Eta, halere, jende laua ezagutu zalea izan den arren, ez da horratik gizarteko goi mailetan zer jende klase bizi den ikasi gabe gelditu. Honatzer esan didan Pete Cenarrusa⁴ politikari sonatuaz, bidenabarrean bezala Amerikako (eta hemengo?) euskaldunen gaineko hagitz erretratu azkarra egiten duela: «Onbeste urtetan estatu sekretario izan dana, oi ezautu nun, Pete Cenarrusa, euskaz garbi itten duna, bizkaitarra, nere oso lagune etzen baño... Enitzen ondo arreglatzen arekin, kabroi samarra zen... Oi ezautu nun, asieran, paperak itten ta nabillenean, beregana laguntza eske jun nitzelako. Esan ziten euskaldune zela ta ni: "de puta madre, onengana jungo nak"; lagunduko zialakoan. Baño batez, kabroi utse. Ta, ardi batzuk e bazizkin, mille pare bat edo, ta artzai batzuk eo eukitzen zizkin or aparte, ta artzaiek gaizki eukitzen zizkin arrek, oso gaizki...

«Ta gero, abogadu euskaldunek eta, asko ezagutu nizkin... Baño, euskaldune, jeneralen, bakik gauz bat?: euskaldune enbidiosoa dek normalen; laguntzeko eztek e! Mejikanoak lagunduko die mejikanoai... baitaa! bueno bueno!, il arte e!, il bear bada're bestea laguntzeko, lagunduko ziek mejikanoak; baño euskaldunek ez e! Euskaldunek euskaldunei... ostia! Pare bat onak eongo'ittuk, baño, normalen... euskaldune laguntzeko eztek. Oso indibidualista. Bera ondo badao ba, geo or konponi. Olako aško dek. Nik ala ikusi dit. Beste lagun bat badit, oso espabilatua bera, bizkaitar bat: ta, artzain zegoala, iru urteko kontratua euki ta bi illebete itteko aldein zin menditik; ta arren atzetik ibilli zien... Emigratioak onea ez deportatzeko, amerikana batekin ezkondu ta in zin, ta ola ibili zen, ta ango euskaldunek artu zien gorroto bat arei! Gorrotoa e! Bakik zeatik? Iru urte arditan etzittulako in! Gorrotoa artu zien e! Ta mutil jatorragoa!, arek lagunduko ziken iri, laguntza bear

² Pete Cenarrusa, 84 urteko bizkaitarra, Idahoko estatu idazkaria da 1967az geroztik. Euskaldunon Egunkariak dioenez (ikus 2002-02-26ko alea), Idahoko errepublikanoen «aitapontekotzat» daukaten agureak, «legengiltzaldi honen hasieran jakinarazi zuen ez zuela berriro aurkezteko asmorik»

Tiburtzio Donearen pestak

ezkero. Ta gizona jator askoa, ona gizona! Klaro, berak regla guzik puskatu zizkin, ta kitto! Ta oañik ondo atea zitzaion, ta ni pozten nak gañea. Baño jendea! Ostia, euskaldunek berak denuntziatu ta dena itten zin e! Jende gaiztoa! Ta pena dek: ez lagundu nai, ta ez lagundu nai bakarrik ez, gañea kalte in arei, i! Nei etziek kalteik in iñork e, baño lagundu're gutxi. Baño azkenen ya dena amerikanoekin itten nun. Amerikanok berak obeto lagunduko die euskaldunek baño, askoz be obeto. Euskaldune, inbidiosoa dek, jende raroa, indibidualista, oso indibidualista: "ni ondo banao, ba or konpon". Ala dek euskaldune».

Euskalduna zinez halakoa bada, zer esperantza izanen du herri honek? Etxera itzulita, gainera, gure hemengo gatazka, gorabehera edo dena delakoa, aldaketa haundirik gabe aurkitu du Bixentek: «Igoaltsu zeok; ordun ta oain igoaltsu zeok. Ezta asko kanbiatu...» Honatx, nola azal-

du didan, preziorik ez duen gertakaria kontatu bidenabar, nondik nora doan ere ez dakien herriaren urradura: «Entzun nun gauzaik tristena: Naparroa etzela Euskalerrria geio! Ni etorri nitzen onea ta, joan den urten Euskadiko elezioak... Ni Leitzan enpadronatuta nao, ta ni Leitza etorri nitzen botatzea! Ta esan zien: "Au ez da Euskadi!" Qué mixeria! Enekin zeñen alde botatu bear nun, baño banekin PP-n kontra botatu bear nula, ori bai. Ze, etorri ta denbora pixka ortan, entzun nun Mayor Oreja ori izketan ta, gorroto bat artu nion! Ta etorri nitzen Leitzara ta "au ez dela Euskadi" i! Aman etxea jun nitzen ta esan zien: "Ez, ez, ez, onea alperrik etorri aiz, au ezta Euskadi!"».

MIKEL OLANO

ANTTON ABBADIA: Euskaldun ta Irlandar guztiz aaltsua (1810-1897). Goyan Bego

Antton Abbadia Thompson-Irlanda'ko Dublin uri nagusian jaio zen 1.810. urtean, ilbeltzaren 3an eta Paris'ean il zen 1.897 urtegarreneko epaillaren 17'an. Gurasoak Arnaud-Michel D'Abbadie Zuberoko Urruxtoi (Arrast) errian sortua zen eta ama berriz Elisabete Anthony Thompson of., Irlandan sortu zen. Guraso auk ondasun aundien jabe ziren. Antton'i, aitonaren izena paratu zioten eta familian geroztikan sortu ziren seme-alabei izen aukin bataiatu zittuzten: Eñaut, Jean Xarles, Elise, Zeline eta Juliene.

Irlandatik Frantzira ze urtetan itzuli ziren zeastasun osoz ez dakigu, baiñan Jose Arana Jesuitaren esanetan 1.813 urtean izan zen; Louis Davant'ek dionez 1.820 urtean. Tolosa'ko (Toulouse) urian kokatu ziren. Antton'ek, gazte eskola ikasketak asi eta burutu, uri ontan egin zittuen eta nola: matematika, fisika, kimika, botanika, astronomia, latina eta grekoa bikain, bikain mailla lorturik.

1.829. urtean yadanik Parisen bizitzen paratuak daudelarik, Bayona'ko Seminario Nagusi buru den Darrigort abadearen: "Analyse raisonne'e du Systeme Gramatical de la Langue Basque" deritzan lanari "Volney" saria ematea lortuko du. Eta aldi berean Legea eta Zientzi zeatzak diren gaiek sakontzeari eta jorratzeari murgiltzen da; aldi artako Francoais Arago maisu ospetsua buru duelarik. 1.832. urtean aita il egin zitzaizen-Goyan Bego. Aldi ontan betidanik amestu izanik duen sortkalderako bidaia prestatzen ari da; bai; Arabiera izkuntza bereganatzen, nola astronomiarako bearrezko erremientak gertutzen....

1.833. urtean Frantzi'ko Britaini'ko eremuetara doa, emengo elizeko atarien irudiak marrazten dituelarik; bakaillu arrantzaz ere arduratzen delarikan.

1.835. urtean Irlanda-Inglaterra-Eskozia eta Euskalerrian barrena ibilliko da. Erri auei buruz liburutxo bat idazten du "Pensees, etudes et

voyages de 1.835" liburutxo onenganako bitxikeri bat izkribatzen noakizu, irakurle: Paris'ko "Institut de France" ko liburutegian zegoen delako liburu au eta Abbadi eriotzaren 100 urteurrena ospatzerakoan berritik sortarazi zuten ospelartarrek, jendeek irakurri zezaten. Bai, bidai ibilliaren bitxikeriaz ondoren Paris'era itzultzen da, eta emen delarikan bere buruan duen bidai nagusiari ekitera murgiltzen da bete betean, eta bidai au irakurle estimagarria dezu, Etiopia..., Nilo errekararen iturburu eta zibilizazioaren seaska izan daitekeen aurkitu naiarengo kutiziaz. Au bete aal izateko Lasmartine jakintuaren "Vollage en Orient" liburuaren pasarteak kopiatzeari, dio egokien. Berrero, Etiopiarara abittu aintziñetik, Inglaterrara joan-etorri bat egiten du; zera delata Jauregi bat ikusi naiar en kutizimiña emanda. Binabarrean Inglaterratik Afrika ipar alde-runtz Mediterraneoan itsas barren dabilten itsas-ontzietako arduraduneri galdezka, ea ze sari pagatu bearko ote lukeen bere kutiziko ibilli aldia egin aal izateko.

Nik eskutan dedan txostenak dionez, gogoangarriko txertoa izan zitzaion Inglaterrarako bidaia: Jauregiz eta illik zegoen gizon ospetsuen illobiak eta oroitarrak aaztu eziñezkoak derizkio bere idatz-oarretan. Baita ere txostenak dio, urte artako udazkeneko egunetan Euskalerriri bisita ere egiten omen diola. Emen sendikoez zeukaten Jauregi batean urbiltzen omen zitzaizkion ainbat adiskide... Zuberoko, Nafarbeeko eta Lapurdikoez.

1.835 an Arago maisu izanaren aolku oarrakonik artu-ta Brasil'era abiatzen da, Magnetismo-iturri buruzko ikerketak egitera. Olinda deritzen den urian, Prantziskotarrek duten konbentu bateko Kalostrean, ari da lanean. Aldi artan, Jakintza

alorrean ziren tresneri aurreratuenetakoak, erosonak, bereganaturikan ikerketak egiñez. Baita ere erran gabe utzi ez leikena idaztera noakizu, irakurle. Brasil'en beste erro...

Tiburtzio Donearen pestak

askotan bezelaxe,ba zen inkisidoreen Bazkuna. Ba auek, inkisidoreek, alegia, nunbait ez gogoko Abbadia Jaunak egiten ari zen ikerketa eta zer dala-ta Antton aundia,giltzapen sartu zuten. Giltzapeko naigabe samiñaz, zitalaz paraitua izan zen.

Olinda uriko Ingles Kontsulariari-esker aunitz-giltzapetik askatua izan zen.Au gertatu eta gerta, aalik eta leen bait leen anka egin eta Paris`era itzuliko da.

1.836ean: gogoz artu irakurle, Zubero`tar Augustin ChaHo`rekin bat egiñik plazaratzen dittuzte txosten edo liburu auek: "Zazpi Uskal Herrietako Uskaldunek" eta "Etudes gramaticales sur la lange euskarieme".

Buruan dittuzte antziñeko gramatikariak: Oihenart, Harriet, Larramendi, Humbolt, Lecluse, aldi artako Euskal izpirituren saiame-na goralpatuz. Nola Chaho`ko ala Antton bera.Onek bere izkribuetan aditzera ematen dutenez, Gramatikari begiz irauziz, izpiz benik, gure Euskerak ba ote duen erkaketarik onoko ele auengan: Hungrieraz, Fineseraz, Hebreraz, Laponieraz, Georkieraz.

Abbadia Jaunaren bere lan gotor aztunataz joan gaitezen, irakurle: izkuntzaren aldetik jo dezagun, ziñez, langintzako emaitzak: Frantzez Amariña iztegia izan zen. 15 milla itz inguru dittuena eta 1000 orritik gorakoa... Gai au, izkuntzaren esparruan, Abbadiaren lanetatik aundiena bezala dela erran daiteeke aipatu dedan iztegia, alegia.

Etiopia Nazioaren alde, obetu, indartu, bertako seme-alabeei ainbat eta geiagoren alde egin zuten misiolariei, ala Lazariste edo Kaputxinoei iztegia eskuratu zitzaien. Anttonen esker ona bejondaimena egatu eta ixuri izan zen izkuntzalari ziren Toubier, Caulbeau, Sheah,Taurin,Cahagne aldi ontan, Amariña iztegia, onik eta altxor bikain atera zedin egin zuten lanarengatik.

Liburuaren -itz aurrean gramatika oar batzuk paratzen dittu gure "Zuberotarrak" zera eta Euskera eta Amariñokiko izan zezaketen ezer ikustekorik. Baiñan orduan eta gaurko gramatikaren maillan murgildurik dauden izkuntzalarien esanetan, Amariña: semitikoan, afro-asiatikoen multzokotan oiñarrituta omen

dago. Bai egia da, misiolariei eskuratu izan zitzaie la iztegia, baiñan aipatu bearrean naiz aldi artako eta Etiopiako errietan beraien lanetan ari ziren abentura zale eta kolonizaileei baliatu izan zitzaie la dalako Frantsez Amariñaren iztegia. Eta zin ziñez baliatu izan zitzaionari zera izan zen Arthur Rimbaud poetari, Afrikara joateko erabaki zuenean arrats baliogarria izan omen zitzaion Frantses-Amariña, iztegia, jakintzak ala dionez.

1.837. urtean, Parisen bizi ziren senditarrei eta adiskide kuttunei Agur- Diosalak eman ondoren, ametsez beterik zeukan Etiopiako bidaiari, asiera ematera dio. Amabi urte iraungo zuen kutizi guzizko zuen amets lillurak; Frantziko Marsella`ko itsas- portutik abiatzen da.Marta, Alexandria, El Kairo, Nilo erreka, Kene`h, Jeddatt, Missawa,Itsas Gorria, Gameluak, ainbat izkuntza arrotzak Mekara`runtz zijoazen Musulmanen mingañe-etatik entzunak...Hamaika arrisku eta oztopo gorriekin aurkitu zen gure Antton aundia baiña denak aal zuen neurri onez garaitu zittuen .

Etiopiako lurraldeetan sarturik, Adwa`raiño-ko erresumenera iristen da eta ildoan, ikerketak egiñez diolarikan, jabetzen da berak daramazkin tresnak zuzenez, zeastasunez, ez dutela baliorik, alegia Geodesiaren babesean lanik egin nai zintzoki kutizi osoan eta lanik ezin burutu aal izan zuen. Mendietako gaillurak eta gaiñontzeko eremuetako lurrak beraien luze- zabalean neurriez atxikatu nai bere gogo onex eremu aietako marraz, mapan paratu aal izateko, baiñan lan guzti guztia alparrikako saioa. Azkenean oartzen da bera oiñperatzen duen lurrari eziñezkoa dela; eremuak, lurrak, alegia, burnikiz kutxatutako lurrak direlako.

Anttonek dittuen tresnak, erramientak, paraje aietarako alperrikakoak... Au horrela gertaturik Parise`ra joateko erabakia artzen du eta bidenabarrean, Etioipian erositako Jopu morroi batekin ba dator... Onantzarakoan Erroman geldi- aldia egiten du eta Aita Santuarekin mintzatzen da. Aita Santuari, beraien arteko solasean, esaten dio Etiopiako eremuetan zein bearrezko lirakeen misiolariak.

Pariseko Geografi Elkarteko jakintsuei, ordurarte lortutako Jakintza maillako urrats

Leitzako jaiak 2002

guztiak aurkezten dizkie txosten baten bidez. Urrengo Geografi Bazkuneko bazkideek, aurreko aldian zer nolako eragotziak izan zittuen jakinik eta laister berriro ere egiñen zuen bidairako, jakintza ekintzarako aldi artan ziren goi-maillako tresnak, eskeiñi zien, erramientak ordurako oberenak.

1.840an Otsaillean, Missiwa`n dago. Emen berriro Eñaut anaiarekin aurkitzen da baiñan au, Koxo deritzen den Buruzagiaren lagun miñ eta arrats kuttuna egiteraiño egiñik... ainbesterañoko adiskidetasuna izanik, Gudarien Buru izate-raiño billakatu zen diodedan Eñaut, anaia. Beraien artean izandako itz solasean erabakitzen dute bakoitzak duen burutapenari jarraitzera eta anai biak berezi egiten dira. Geroragoko aldi batean, gure Anttoneri istripu guztiz damugarri bat gertatu zitzaion eta eskopeta bat izan zen nairgabearen sortzaile. Begi bat erdi galdurik eduki omen zuen. Aden`go, El Kairo eta beste zenbat urietako sendagilleengan murgilduriz eguna joan eta eguna etorritz senda-itxura egoki bat izate-raiño.

Eritasuna xamurtzen juanalean, jadanikiola, ekitzen dio apur apurka uztarturik bere langintzari: Geodesiako neurriak, izkuntzak, literaturak eta oiturak; aldi berean jakindutako ikasiak, Paris`era bidaltzen dittu, Jonard eta Avezae Jaun jakintsuengana.

Irakurle, esan gabe ezin utziko dut, 1.843-44 urteetan, nola Judu beltzak gelditzen diren errietan; auei ere ikerketak egiten dizkie: erligioaz, oituraz, izkuntzaz eta abar luze bat aalik eta xeetasun guztiz etekiña atera naiez.

1.847`ko ilbeltzaren 19`an, Abaddi anaiek Nilo erreka zuriaren itur sortburu izan litekeen lekuan, au da, Etiopia garaiko, Bubbiako oianean, Inarya eta Jimma erresumaren artean Frantziko ikurriña paratzen dute. Urte berean ere, beraien ama Elisabete`k, aspaldikotan Antton`en bizi aztarnarik ez izanik, beste semea, anaietan gazteena, Jean Xarles bidaltzen du Antton`en billa. Jean Xarles`ek, hamaika urrats, esparru ez jakin auetan egiñalez, noiz batean, 1.847`ko uztailaren 25`an aurkittuko du Antton, Missiwan.

Eta anai gazteak, apika, amaren kutizinaia azaltzen dio, baiña oni Frantzira itzultzerik ez zaio bururatzen. Katetupean bezelatsu senti-

tzen du bere soiña Erresume auetan. Emengo Jauntxo, buruzagi auniztengan adiskide miñ egiñik. Ikerketak adiskideak, bere kutizi pozean uztartu-ta aurkitzen da. Urte auetan igarotako pasadizoren gertakariak ausnartzen ari dira anai biek, hamaika gertakari bai eta Eñaut`ek esate baterako " Douce ans de séjour dans la Haute Ethiopie", idazten du, amabi urteko egonaldia Etiopia garaian. Eta Antton`ek, beste lan askoren artean, " Geographie de L`Ethiopie ce que J'ai entendu faisant suite à ce que J'ai vu", Etiopiako geografari buruz idazten du.

Baiñan, bai, bai, etorri zaio aldia Etiopian dittuen lagun miñengandik bereiztu eta geroarte esateko unea. 1.848`ko udazkenean El Kairora iristen da eta emen itsasontzi bat arturik 1.849`an Marseillan da. Emendik aldi berean Hendaia, Abbadia izenez ezaguna den Gaztelura edo Egoitzara.

Derrigorrez aipatu bearrean naiz gertakari biaz; bata 1.850`an Frantziko " Soc de Geographie"koek urrezko domiña eman ziela eta bestea berriz 1.851`an Noruega`ko Frederiks Voern izena duen errira doa uztailaren 28`an izanen den Eguzkiaren osoko Eklipsea ikertzera, 3 minutu eta 26 segundu iraun zuenak. 1.852. urtean Paris`ko " Akademie des Seieneces" `ko partaide izendatu zuten.

Antton`en biziriko Kondairari buruz ari naizenez, aipatu barik nola utziko dut, Abbadia Jaunaren ezkontza. 1.859. urtean izan zen eta Lyongo alaba zen Virginia Vincent de Sain Bonnet`ekin ezkondu zen. 28 urte zittuen neskatxak, emaztetzaz artu zuen Antton`ek.

Aintzinara goazeman irakurle: 1.860. urtean, Burgos`ko Bribieska errira die, ospe aundiaren jabe diren zenbait astronomoekin batera: Petit, Lespiault, Prazmowski: Osokoa izanen zen Eklipse bat ikertzera; onen illun-aldia 3 minutu eta 24 segundukoa izan omen zen. 1.867`garrenean Argeliara die Eguzkiaren Betegabeko Eklipse izanen zen arakatzera. 1.882`garrenean, emaztearekin batera Haiti`ra abiatzen dira, baiña ez pentsa atsegiñaren atsendenaren billa diestelarik, lanera baizik.

Frantzia aldeko gizon jakintsu batzuekin, Ugarte artara espedizio bat antolatuta, Antton, salleko buru delarik, Venus planetaren

Tiburtzio Donearen pestak

igaro aldi-une ikusmin egokia dularikan, zorioneko aldi ori ikertzera, aztertzeraz dieste espediziozko gizonen...

1.884-85 garrenean, Sorkalderat, luzea izanen zaien bidaia antolatzen dute; gaztetako orotzapenak berriratu eta ikerketa berriak burutzeko asmoz: El Kairo, Atenas, Alexandria, Beirut, Damasko, Napoles, Erroma uriak izanen dira oinperatuko ditzuztenak; Astronomiarekin onuratsu, zillegitsu izanen zaizkien jakintzen oarrak buruetan arturik edo paper-orrietan idatzirik.

Irakurle: goazeman aintziñera, orain idaztera noan atala guztiz aintzaz artzekoa delakoan naiz: 1.860an, Hendaiaiko errian 340 hektare eremu edo lurra erosi zittuen, geroz eremuko zati batean eraiki zuen zoragarrizko, lilluraziko lukeen Jauregi bikain, bikain bat.

Aldi artan Frantzian zirenetako arkitekto ospetsu bati- Viollet Le Duk- Jaunari Jauregia izanen zen etxeko plano egiñarazi zion baiñan Jauregia izanen zen etxea Duthoit arkitekto jaunak eraiki zuen, lenen planorenpean zeuden motak zer edo zer aldatuz, txostenak dionez edo nik ala ulertuz, Jauregia, Neogotikoa deritzen denetakoa da.

Jauregi atariko eremuak Etiopiako mota askotako pizti aziendaz, arrizko irudietan moldaturiz ikusi leizke, begin bidez daztatuz ditezkeenak lilurazteraiño. Sugeak, kokodriloak eta abar luze bat. Jauregian barre barrenean gelak, liburutegia irudiz iduri bizi direlakotan... Etiopiar esaera zaar, atsotitz, maiz- maiz irakurri leizke, begiraleari legokioken eran, arrets sineskaitz biurtzeraiño...

1.880 garrenean metro bi luze zuen teleskopio bat ezarri zuen gela batean, ortziari jendeen ikusmiña, ikuskutizia ase- atsegiña izan zezaten, alegia 1.864 garrenean Urruñako Erri- etxeko gizoni Lapurteraz idatzitako esku- izkribu bat bidali zien eta "Esan oi da, Antton'ek, euskeraz idatzitako izkribu bakan bakanetakoa dela" gutunaren erran naia au da: Zuberoko eramuetako ibilli bideek arrats txartuak zeudela eta beraietan ibilli aal izateak eziñezko moduan...zeudela.

1.842 garrenean- garagarrillaren 17'an- Paris'en zegoen "Societe de Geographie" dala-

ko onek, Anttonek egin zuen txostenaren bidez, jabetu zen, aldarrikatuz, 12 urteetako bidaietako irakasketek Amariña izkuntzarengan zittuen bitxikeri geienetaz. Au horrela delarik 1.850 garrenean- urriaren 2'an- Geografia Bazkunak, Frantziako Leendakariak bere eskuz sinaturik, anai biek Antton eta Eñaut'ek jabetzen dira Urrezko domiñaz, ala berean baita ere Legiokoaren Oorezkoa.

1.852 garrenean Geografia eta Itsas bideetako idazlanen saria artu zuten eta aaztu ez dezadan Abbadia Urgazle autatua izan zen. 1.867 garrenean berriz, Institutio beren partaide oso osokoak izateraiño iritxi ziren. 1.870 garrenean Pariseko Filologia Elkarteko Leendakari izatera lortu zuen. 1.877'an Bruselako "Societe Seientifique" ko partaide izan zen. Oore eta aintza oparoak, naiko, aski ez direla eta 1.878'an ain zuzen "Bureau de Longitudes" deritzen denaren langille izendatu zuten. Azkenikan 1.892'an Frantziako Zientzia Akademiaren Leendakaritarako aukeratua izan zen. ¡ Au oorea !.

XIX gizaldia aurreratxoraiño munduan ziren Erresumenetan, geienengotxoetan esan dezaket, esklabo edo esklabak izateko legetua zegoela, oiñarriturik, alegia gizakumea saldu-erosi zittekenezko giroak sakabanatuak...

Goazeman irakurle, giro au astintzera 1.879'ko - agorraren 21'ean- Frantziako Perpinyan urian, omenaldi bat eratu zitzaion Frantzian 1.848'an kolonietarako arduratzen zen ministroari; gizaseme oni nola deritzen zitzaion ez det ikasi, nai- ta saiatu arren.

Ospakizun ontarako gure Antton'ek itzaldi bat eman zuen- aurretik antolatuta- eta bere itzortzetatik ixuri ziren ainbat aolku zentzudun billakatuak; aldi artan izan zen gizakunde madarikatua eta zitalarengan aldarrikatuaz. Zenbat erresumetan oiñarriturik zegoen txar-giro bilaukeri ura salatuaz, giza- biotzak onera joan bearrean usteldutako sakoneetara amildurik gixan, ikusten zuen gure Antton'ek bizi-aldizko esklabokeri ura, alegia. Esklabokeriaren ariari eldu diodan ezkeron erran bearrean naizela beste onako garrantzizko gertakaria.

Aldi aietan Bruselasko urian, adiskide zintzo eta ospe aundia zuen Lageberi euskaldun

Leitzako jaiak 2002

Kardenalak, esklabokeriaren aurkako batzar bat guztiz aaltsua antolaturik zeukan, ala izanikan ba, Kardenalaren kutizi naiarekin bat egiñik txosten guztiz aaltsu bat iragarri zuen batzarkiden batek, irakurri aal zezan, ospatzen ari zen batzar artarako. Baiñan zintzo zaitudan irakurle, erran oi da "Betiko Jaungoikoa" eta ala izanikan Antton`ek guztiz aaltsua eriotzarekin topo egin zuen "Goyan Bego". Eta eriotzaren aintziñaxeko aldian: Arabiera izkuntzatik Frantsesera "Iman ahmed grazne" itzultzen ari zen XVI mendeko konkistak eta espedizioak; liburu oni azken itzultza ematerik ez zuen izan, baiñan ala eta guztiz Vienako Unibertsitatean maisu-irakasle zen Paulitsehke Jaunak, bukaera eman zion Anttonen graziaren onerako izan zedin.

Antton`ek berak zuen Euskal senaren griña, kutizi ase- eziña oparotsuek era askotako alo-reetara egatuak izan ziren, bere atsegabezko doaiek, arnasartuak jo zuten bai bertsolariet, koplariet, pillotariet, lasterkariet, irrintzilariet... Baita ere abelgintzariari, auei aurkezten zittuzten azienda oberenari sari mardulak emanez.

Aldi ontan 1.897 inguruan, liburu bikain bat argitu zen zentzu oberenarekin, egokia, jakinkia eta era berean mardula: Laburdi`tar Euskal literaturan ospetsu ziren Duvoisin, Intxauspe Jaunak zuzendatuta eta Antton`en babesean. Liburu onek dakar- aldi artan- sari- tuak izan ziren izkribulari, maisu sutu eta aal- tsuak: Joanen Oxalde, Leon Elizanburu, Jean Bautiste Elizanburu, au zen "ikustun duzu mendian" egillearen aaztukaitza- Augustin Etxeberri, Zaldubi, Martin Arrupe, Arrese Beitia, Biktoriano Iraola, Etxegarai, Ibarret, Joxe Artola, Klaudio Otaegi, Kasal, Lopez Allen...

Irakurle: orain dijoazkizun izkribuen lerroak, Euskalerrian XIX gizaldiko erditik bukaerarteainoxe, ospe, grazia eta doai guztiz aal- tsuak "Euskal Lore Jokoak" izan dittugu. Euskal Erriari eman zien, seetasunez bete bete- rik ez badira ere, dakidedan eran paratuko dittut.

Oarra, Lore Jokuen Sortzaille buru, Abbadia Jauna dugu. 1.851`an asiera eman zitzaien eta itzal giro unea 1.899`an ... Laburdiko Urruña Erriari ospatu ziren leenengoz, erri berean 1.863an. Lapurdi`ko Sara erriari: 1.864, 1.876,

1.878, 1.882, 1.884 eta 1.885. urteetan. Laburdiko beste erri auetanere; Kanbo 1.888`an eta Donibane Lohizune 1.892`ean.

Naparro Beeran: Donapaleu 1.877`an Donibane Garazi 1.894`an.

Goazeman Ziberora: Maule 1.880, 1.890 eta 1.896`an.

Gure Naparroan, Doneztebe 1.889`an, Bera 1.895`an eta Elizondo erriari 1.879`an, ospe aundiz egatuaz, aldarrikatuaz, izan ziren erri ontako Lore-jokoak.

Gipuzkoan berriz, Irun 1.881`an, Urnieta 1.886`an.

Azpeitiko bertsolari leia. Azpeitin 1.893`ko agorraren 10`an ospe aundia izan zuten, bertsolarien arteko leiak ospatu ziren. Aita Zabalak idatzitako txosten batek dionez, 5000 gizaki izanen zirela leiaketa onen bilkuran.


Aldi ontan, oberenen antzean juzgatuta zeudenak eta etorri zirenak, auek ziren: Jose Bernardo Otaño, Juan Jose Alkain, Pello Errota eta Juan Jose "Udarregi". Azkeneko bi bertsolari auen artean, gertakizun minkatz bat sortu zen eta auzi biurtu, eta gertakizun ori guztia, irabazitako sariarengatik.

Goazeman Bizkaira: Markiña 1.883`an, Iurreta 1.891`an eta Areatzan 1.897`an.

Araban: gure eremuetako lurra izanikan aaztuta ezin utziko dugu, onera ere iritxi zen Abbadiaren kutizi miña- emankorraren ikurra eta aukeratutako erria, Aramaio izan zen 1.899`an. Beste gaiñontzeko errietan bezelaxe, emen ere izan ziren eratutako leiaketak.

Garaileek irabazitako sariak- ots- Virginia Abbadia emazte alargunaren eskuetatik esku- ratu zittuzten; bera izan zen Araban, Lore jokoen babeslaria gure Abbadie illik zegoen- Goyan Bego-

Bukatzerara noa nere idatz -txostena, baiñan ez erran barik- aldi artan- jada, Zazpiak baten ikurra sortu zenaren urtea: au izan zen 1.892`an eta Laburdiko, Donibane Lohizunen, erriari. Luzarorako ala izan bedi.



Guztiok dakigu eta leitzarrok gehiago, emaitza hau zein pilota partidari dago-kion, baina ondorengo lerroetan ez gara garaipen horretaz ariko, leitzarron iritzien artean antzeko emaitzak eman dituen gai baten inguruan baizik. Zertaz ari garen? Ba azken urteotan, Guardia Zibilaren inguruan leitzarron artean behin eta berriz errepikatu diren emaitzez: leitzar gehiengo zabalak (ia guztiok) ez dugula kuartelik nahi, alegia. Hori erakusten dute behintzat, azken urteotan gaiaren inguruan egin diren hainbat iritzi agerpenek, besteak beste, 1999an herritarren iritziak jasozituen inkestak, 2000. urteko pesta bezperan Guardia Zibilaren errepresioaren aurka egindako sinadura bilketa zein prentsaurrekoak (herriko alderdi politiko, sindikatu zein herri elkarte ia guztiok parte hartu zutelarik), hala nola, 2001. urte bukaeran Maxurrenea herriarentzat izan dadin egindako sinadura bilketak zein ondorengo manifestazioak.

ATAKABELTZ HERRINTZAT!

Ezaguna den bezala, mende luze bat darama Guardia Zibilak Atakabeltz parajeen kokatutako herriko etxea okupatzen, herriarena den etxe bat kuartel-etxe gisa erabiltzen alegia. Bada, orain dela hiru urte, 1999an leitzarron iritziak jasotzeko egindako inkestako emaitza ezberdinek argi utzi zuten jada Guardia Zibilaz eta kuartel-etxeaz leitzarrok pentsatzen duguna: leitzarren artean 20tik bakarrak egin zuen Guardia Zibilaz balorazio positiboa (%5ak baino ez).

Are gehiago, proportzio bera errepikatu zen, kuartel-etxea zertarako erabili beharko zen galdetzean: ia leitzar guztiok, hau da, 20tik 19k (%95) Atakabeltz kuartel-etxe izateko baino beste helburu batzuetarako nahiago zutela adierazi zuten (gazteentzako lokalak, kultur-etxea, zaharren egoitza, babes ofizialeko etxebizitzak...).

Beraz orain dela hiru urte jada argi zegoen, leitzarrok kuartel-etxearen eta kultur-etxearen

artein aukeratu behar izanez gero, zein litzatekeen gure hautua: ia leitzar guztiok kultur etxea nahiago dugu. Egun jarrera hori mantentzen dela edo areagotu dela ere esan genezake, nahiz eta bere garaian egindako inkestaren egungo emaitzik ez izan.

MAXURRENEA HERRIARENTZAT!

Leitzarron gehiengoaren nahia berriro ere agerian gelditu da UPN-PPk Maxurrenea kuartel-etxe bilakatu nahi duela eta, erabaki horren aurka berriki egin den sinadura bilketan: ia leitzar guztiok, 10etik 7k baino gehiagok ez du Maxurrenean ere Guardia Zibilik nahi.

Zehazki, 1.600 leitzar inguruk sinatu zuten Maxurrenea kuartel-etxe bilakatzearen aurka. Sinatu zezaketanak 16 urtez goragoko 2.400 lagun inguru zirela kontuan hartuz, helburu horrekin bere sinadura eman zutenak hamar leitzarretik zazpi izan zirela esan dezakegu (%66). Kopuru benetan adierazgarria, sinadura bilketak aste gutxi batzuk besterik ez zituela iraun edota Guardia Zibilaren jazarpen bortitzena jasaten duten gazte askok ezin izan zutela sinatu kontuan hartzen badugu. Gainera, zalantzarik ez dago, inkestak anonimoak diren heinean eta horrelako gaietan gehiago, errazagoa dela inkesta batean iritzia agertzea, zure izen-abizen eta Nortasun Zenbakia emanaz, sinadura ematea baino.

Baina bada sinadura ematea baino ausardia gehiago erakusten duen beste protesta bide bat, manifestaldi batean parte hartzea alegia. Bada berriro ere, leitzar askok (heritarren herenak), kalera irten eta Maxurrenea herriarentzat izan dadin eskatu zuen: 1.000 lagun baino gehiago izan ziren, kolore guztietakoak gainera. Deialdia ere aniztasun horren adierazgarri izan zen, manifestaldia herritarren gehiengo zabala ordezkatzan duten herriko ia elkarte eta erakunde guztiok (30 baino gehiago) deitu baitzuten.

Argi dago beraz, Leitzarron erabateko gehiengoaren nahia zein den: ez dugu Guardia

Tiburtzio Donearen pestak

Zibilaren kuartelik nahi, ez Atakabeltzen, ez Maxurrenean! Ezta beste inon ere!

DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT!

Euren burua demokratizatzen duten horiek guztiak, UPN-PP buru dutela, berriro ere, ez daude leitzarron nahia errespetatzeko prest, baina ez gara hori jasaten dugun bakarrak eta ezin dugu inposaketa horien guztien sorburua zein den ahaztu.

Orain euren burua demokratizatzen duten UPN-PPko hauek, Franko buru zutela herritarrek hautatu zuten Madrilgo Gobernu Errepublikarraren aurkako Estatu kolpea eman eta Guda Zibila abian jarri zutenen oinordekoak dira. Nafarroan gainera, Guda Zibila baino sarraski guda egin zuten, guda frenterik ez izan arren milaka nafar afusilatu baitzituzten. Oraingo hauek hamarkadetan euskararen eta euskal kulturaren aurka jazarpen itogarria garatu dutenak dira. Frankok izendatutako erregearen garaiotan jada, nafartarroi Foru "Amejoramentu" legea inposatu zigutenak, gure herriaren zatiketa artifiziala inposatu digutenak, "Ley del vascongado" inposatu diguten berak, lan eta etxebizitza duinerako eskubidea ukatzen dizkigutenak, Itoitz inposatu nahi digutenak, euskal selekzioak ukatzen dizkigutenak... erasoan zerrenda amaitezina litzateke eta etorkizunean zabaldu ere egin nahi dute: euskal erakunde ezberdinak legez kanpo uzten ari dira eta euskal herritarren ordezkariak zabaldu duen alderdia legez kanpo uzteko legeria berezia sortu dute. Guztia, nola ez, euskal herritarren gehiengo zabalaren nahia kontra!

Eta hori guztia demokrata hauek indarrez, errepresioaren bidez egiten dute, herritarren borondatearen aurka alegia. Horren lekuko dira azken urteotan Euskal Herrian okupazio indarrek, Guardia Zibila buru dutela, eragindako erasoak: urtero kontroletan legez kanpoko 50.000 galdeketa edo interrogatorio, arrazoi politikoengatik 16.000 atxilotu baino gehiago, 6.000 pertsona (ez animalia, ez estralurtar, pertsona!) komisaldegietan torturatu, 3.000 lagun baino gehiagori euren manifestazio eskubidea erabiltzeagatik isunak ezarri, azpiegitura militarretarako 40.000.000 m² lurzoru expropiatu... Eta hori gutxi balitz, gerra zikinaren bidez 66 euskal herritar erahil!

Eta hau horrela izanik, hainbat leitzarrek oraindik ere basakeria hauen guztien ardura-dun zuzena den UPN-PPri ematen diote bozka. Askok euskaraz baino ez jakin arren euren hizkuntza lurperatu nahi duen PP-UPNri ematen diote bozka oraindik ere, euren betiko kultura lurperatu nahi duen horri, euren benetako nafar izaera espainiar nahi duen horri... azken finean euren eskubideak egunero murrizten dituen UPN-PPri (lan baldintzetan, langabezia eskubidean, nekazal laguntzetan...).

Frankok izendatutako erregearen zuzendaritzapean eta Gobernu frankistetan izandako politikarien (Fraga, Martin Villa...), euren senideen (Aznar, Cabanillas...) zein UPNko erreketekuneteroen (Del Burgo, Sanz...) eskutik Espainiar Estatu okupatzailea Euskal Herriaren aurka egiten ari den eraso Leitzan ere pairatzen ari gara.

EMAN HITZA HERRIARI!

Leitza ez da burbuila batean isolaturik dagoen herri bat eta eraso horiek guztiak pairatu izan ditu eta egun eraso bortitz hori leitzarroi inoiz baino gertuago suertatzen ari zaigu. Inoiz baino garbiago ikusten da gainera, urrutiko atxiloketa, tortura zein bestelako erasoak, oraingoan hurbilago suertatzen ari zaizkigulako: lehengo kuartela mantendu nahi dute, berri bat ireki, Torrea itxi eta Batasuna ilegalizatu.

Nolabait Leitzako lau etxe garrantzitsuren kontrako eraso gauzatu nahi dutela esan daiteke: Atakabeltz (ehun urtez okupatua), Maxurrenea (okupatze bidean, baldin eta herritarrok behar bezala erantzuten ez badugu), Torrea (ixteko bidean PP-UPNren berrero den Garzonen aginduz) eta Udaletxea (gehiengo absolutua duen alderdia ilegalizatuz, PP-UPN eta PSOEren aginduz, beste batzuen laguntza eta hurbilagokoek eskuak igurtziz).

Argi dago beraz, zeintzuk diren UPN-PPren eta bere berrero Guardia Zibilaren orain arteko jardura eta etorkizuneko asmoak: gehiengoaren gaitetik euren inposatzea. Baina argi dago ere, zein den leitzarron gehiengo zabalaren nahia eta azkenean eraso horien guztien gaitetik gailenduko da. Guztion artean gure nahia errespetaraztea lortuko dugu. Eman hitza herriari! Kuartelik ez!

Leitzako jaiak 2002

BERTSO BERRIAK, LEITZEKO 2002KO KROSSARI JARRIAK II

(Doinuaren izena ez dakit, baina oso ezaguna da)

- 1) Leitzeko herri Krossa da ia klasika
ta aurten izan dira hainbat ikamika
ni neu hantxen izanda isilka-misilka
nire asmo bakarra egitea korrika
ni ez nintzen pika
ta halere inplika
mundua iraulika!!
testiguak hamaika
Denek dakite nondik dator polemika.
- 2) Azalduko dizuet badezue gustua
zertan izan zen bada gertatutakua
Leitzera joan nintzen biziki prestua
halaxe izan zen eta adostutakua
ni Gasteizekua
Txisu Zestukua
Luze bertakua
lagunartekua
itxuraz behintzat giro apartekua.
- 3) Zestuarra genuen onena hirutan
kriston denbora egin zun hori ezin uka
hasieran Luze aurretik, nik lasai hartuta
sorpresa hartu nun gero bera harrapatuta:
Luze arnas estuka
ezin zula buka
mekaguen la puta
ta nik sinistuta
meta ikusi eta kendu zun peluka.
- 4) Luze ikusita hain egoera saminan
berari laguntzen hartu nun zeregina
nahiz ta berak aipatu bere arazo ta minak
azken metroen faltan kristoren esprina
ez zen ba dopina,
ezta aspirina,
ezta zumo piña,
irabazteko griña?
argi esango dizuet: aurpegi fin-fina.
- 5) Bertsook jarri ditut Juan Ramonen esku
Luzengan dagoeneko konfiantzik ez dut
Leitzeko herriak ba egia behar du
Luze nolakoa den benetan ezautu
hartu estu estu
hau dena abestu
bere izena beltztu
parerik ezpaitu
ta hurrengo krosserako dedila prestatu.

Opor onak izan eta aupa Abel!!

RAUL FIZ

ONGI ETORRI ETA GORAINTZI MAITA- SUNTSUAK LEITZATAR GUZTIOI, ORIOTIK LASARTE BERTSOLARIAK

Nik, nere izate xume au zor diodan erria, ezin nezake aastu ta baztarrean utzi iñolako moduz ere, eta ori horrela izanik urteero bezelaxe "Plazaola" aldizkarira, zerbait idatzi ta bialdu nai nuen aurtengoz ere, nola ez, urte gutxi gelditzen zaizkidala jakinik, Leitza aundiari nere esker onak agertu aal izateko, ta ortik aparte berriz, motibo berezi batek erakutsi dit, nondik eta nolatsu egin bear dedan "Palzaola"rako lantxo maitekor eta sentimenturik onenez idatzi eta bialdu, nere erritarren eskuetara, ala nai duen norbaitek gorde lezake agian armaio txokoan, gerorako oroigarri bezela.

Dana dala, Leitzan badegu aipatzea merezi duen mutil gazte zoragarri bat. Leenez gainera, gure erriari izen aundia eman diona zorionez; Abel Barriola pelotaria, leenengo, ezkutuan izerdiz lana galanki egin, punta puntan prestatu, eta pelota zale askoren aurrean, bere aalmen bildurgarriak erakutsi dizkiguna umiltasun osoz eta gizatasunez. 2002garren urteko San Juan bezperan Donostiko "ATANO III" pelota lekua leporaiño jendez betea ikusi genduen, Leitzatar bosteun lagun bai omen ziran frontoian, Beloki eta Barriolak jokatu zuten partidu artan, Belokik ez zuen bere guztoko lanik egin, ez zan oitura duen jokoan sartu. Lastimagarria bada ere, gorpuz aldi txarra edo orrelako zerbait gertatuko zitzaion; gizonak egun denak ez bait ditu berdiñak.

Abel Barriola berriz, sasoi ikaragarrian zegoela zirudien; ura zan pelota astintzeko modua. Ruben Beloki pelotari aundia dala esan oi dute jakintsu askok; ori iñork ere ez du ukatzen eta bi pelotari oiek oraindik gazteak daudenez, alkarren aurka jokatu bearrean egongo dira. Partidu latzak osasunak laguntzen baldin badie behintzat.

Beraz, suerte on bat izan dezatela.

Orion nengon Leitzako

pestan esperoan

leengo urtekoak

pasa ziran eskeroan

SanTiburtzio Donea

daukat nik gogoan

ta bera agurtu nai det

maitasun beroan

Pestan sai or zaudete

orrenbeste gazte

ta zaarrak ere ez dute

zer egonik triste

San Tiburtzio beti da

alaitasun eske

eta pake santuan denok

gozatu zaitezte

"BATASUNA" LEGEZ KANPO

BATASUNA legez kanpo utziko dute epe motzean. AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK eta ASKATASUNA utzi zituzten modu berean. JARRAI, HAIKA eta SEGIrekin egin zuten bezalaxe. KAS eta EKIN erakundeei legalitatea ukatu zieten bide beretik. EGIN egunkaria eta EGIN IRRATIA isilarazi zituzten bezala saiatuko dira isilarazten BATASUNA ere. Denak baitziren ETA. Nonbait.

- * **Klandestinitatea:** Espainiako Gorte Nagusietan onartu berria den legearen arabera, BATASUNAK aurrerantzean ez du inolako lan politikorik egiterik izanen. Bere azpiegiturak (egoitza politikoak, herriko tabernak, kultur elkarteak, aldizkariak, eta abar) itxi eta saldu egingen ditu estatu espainiarrak. BATASUNAKo langile guztiak (ehundaka batzuk) langabezian geratuko dira. "Nominan" jarraituko dutenek klandestinitatean egin beharko dute ezinbestean. Leitzari erreparatzen badiogu, Torrea edozein egunetan itxi dezakete eta udala maiatzetik aurrera ezker abertzaleko alkate eta zinegotzirik gabe gera daiteke.
- * **Hautetsiak:** Euskal Herriko hautetsiek (legebiltzarkide, batzarkide, alkate eta zinegotzietatik) orain arte bezala jarraituko dute lanean. Baina ez BATASUNAREN izenean, BATASUNA mutu utziko baitu estatuak. Hala ere, herritarrei iritsi egingen zaie BATASUNAREN mezua. Hautetsiek beren gain hartu baitute horren ardura.
- * **Alderdi politikorik ez:** PP, PSOE eta UPN ez dira ase geratuko BATASUNA legez kanpo utzita. Haruntzago joan nahi dute eta aurrerantzean ez dute legeztatuko antzeko egitasmo politiko, azpiegitura, arduradun eta abar duen alderdirik. Aurrerantzean alderdi politikorik gabe utziko dute ezker abertzalea. Hauteskuendak egin ahala, instituzioetatik kanpo utziko dute ezker abertzalea. Zenbat urtez leporatu digute ez ginela Legebiltzarreetara joaten eta orain, nahikoa normaltasunez ari garelarik, bortizki eta betirako bidaltzen gaituzte instituzioetatik!!!

- * **Preso politiko gehiago:** orain artekoak ikusita, BATASUNAKo arduradun politiko morderat gartzelara eramanez dutela pentsa liteke. Aurreko urteetan beste elkarte eta erakunde politikotako zuzendaritzetako kide asko eramanez ohi duten modu berean. Erakunde hauek arduradun franko dago gartzelan edo atxilotua izateko agindua gainez duela, tartean leitzar bat ere badugularik, Eneko Aizpuru Giraldo hain zuzen. Lerrook idazterakoan inork ez daki agintari frantziarrek zer egingen duten berarekin. Espainiarren esku utzi ezker, torturatua eta berriz gartzelaratua izateko arriskua du. Bestalde, Euskal Herriak gaur espainiar eta frantziar gartzeletan azken hamarkadetan inoiz izan duen preso politiko kopururik handiena duela gogoratzea komeni da, 602 hau idaztean, horien artean Eneko Zestau Aranibar aurkitzen delarik. BATASUNA legez kanpo uzteak eskaintzen dion aukera aprobetxatu nahiko du Madrilgo Gobernuak eta ziur gara euskal preso politikoen kolektiboa handitu egingen dutela faszista espainiarrek.
- * **Aznarren asmoak:** errepresio hau dena zertarako? Borroka armatua praktikatzeko duen erakundea deusezteko? Pakea Euskal Herrira azkarrago ekartzeko? Denok lasaiago bizi ahal izateko? Egoera demokratikoagoa jartzeko? Garbi dago Aznarren asmoak ez direla horiek. Zeren BATASUNA legez kanpo uztean lortzen duena erabat aurkakoa da, hain zuzen: talde armatua indartu, pake bidea korapilatu, etxe guztietan urduritasuna areagotu eta deficit demokratikoa handitu. Frankismoaren garaietara garamatza Aznarrek eta 1936ko gerrateko mamuak paratzen dizkigu berriz ere begi bistan. BATASUNA legez kanpo uzteko erabakia Euskal Herrira tentsio handiagoa ekartzeko pentsatua dago. Euskal Herriaren tentsioa areagotuz bi helburu lortu nahi du Francoren oinordeko zital honek: a) Euskal Herriaren eraikuntza ezinezkoa egin, euskaldunok denbora gaur daukaguna defenditzen eta beren erasoei erantzuten pasa dezagun; b) Espainian boto ugari irabazi, egun espainolen

Tiburtzio Donearen pestak

ilusio handiena euskaldunoi egurra eman diezaguten baita eta hori hauteskondeetan botoen bitartez saritzen baitute.


- * **Euskal Herria suntsitu:** Aznarrek Euskal Herriari bere nortasuna eta identitatea ezabatu nahi dizkio. Konstituzio espainiarrak ezarritako mugen menpe nahi du herri hau, Madrilgo Gorteek ezarritako legeen menpe, Polizia eta Goardia Zibil atzerritarrek ezarritako errepresoaren menpe, epaile arrotzek ezarritako zigorren menpe. Bide horretan, euskara eskolatik eta unibertsitatetik kentzen saiatuko dira, herri honen historia eta kultura desitxuratuko digute, bertako komunikabideek egia bezala salduko digute gezurra, gazte ugarik gartzelan bukatuko du, torturak eguneroko errealitate ezkutua izaten jarraituko du..., hau da, herri honi askatasunerako eta burujabetzarako aukera guztiak zapuztu nahian jarraituko du Francoren oinordeko ziztrinak. Orain artean bezala aurrerantzean ere.
- * **Ezker abertzalearen eskaintza:** Euskal Herriaren eraikuntza. Egoera latz honen aurrean, gure herriaren eraikuntza elkar lanaren bitartez egin dezagun proposatzen du ezker abertzaleak. Gure herria Euskal Herria dela diogun guztiok, bihotzez Euskal Herria maite dugun guztiok, elkarrekin lanean has gaitzen. Gure seme-alabek euskaraz mintzatzeten eta Euskal Herria ezagutzen eta maitatzeten lagunduko dien eskola izan dezaten, duinak izanen diren langabetu, jubilatatu eta alargunentzako pentsioak Euskal Herrian bertan erabaki daitezten, gazteek etxebizitza eskuratzeko modua izan dezaten, euskal selekzioek mundu osoan zehar ofizialki jardun dezaten, hona iritsi diren etorkinekiko politika Madrilen ez baizik Euskal Herrian bertan finka dadin, autodeterminazio eskubidea aitortu diezaguten, Europar Batasunean berdintasunezko lekua izan dezagun, preso politiko eta iheslariak etxerako bidea har dezaten..., hau da, bere buruaren jabe izanen den Euskal Herria lehenbailehen eraikitzen has gaitzen. Orduan soilik izanen baita lurralde honetan pakean eta askatasunean bizitzeko egiazko aukerarik.
- * **Espainiak menpeko nahi gaitu:** Euskal Herri burujabea lortzen ez dugun bitartean Madrildik eta Paristik egurra eta errepresoa besterik ez zaigu etorriko. Gure dirua eta ondareak soilik dituzte gustuko lurralde hauetatik. Menpeko nahi gaituzte, umil eta isilik, gure aberastasunak berenak balira bezala administratzeko.
- * **Euskal Herriak independentzia behar du:** Madrilek euskaldunoi egiten digun eskaintza politiko guztia errepresoa eta eskubideen ukapena da. Sekulan ez digute elkarrekin eraikitzekeo egitasmorik eskaini. Eta hainbeste mende eta gero, inoiz halako eskaintzarik jasoko ote dugun itxaropena agortu egin zaigu osotara. Bakoitzak bere bidea egin dezan dugu hoberena. Nork bere gustukoa. Aurrerago proiektu komun bat eraikitzekeo aukera sortuko balitz orduan eztabaidatuko genuke. Baina orain lotzen gaituzten kateak apurtzeko garaiak dira. Euskal Herriak bere buruaren jabe izan beharra du, askatasunean eta pakean inoiz biziko bada. Gaurkoan jarraitzea sufri-menduz josita bizitzen jarraitzea baita.
- * **Borrokaren bidea:** zer bide gehiago dugu aukeran euskaldunok askatasuna eta pakea lortzeko? Edo hobekiago esanda, ba al dugu borroka ez den beste biderik? Madrilek eta Parisek ez digute deus onik oparitu, orain artean oparitu ez diguten bezalaxe. Gure eskubideak ozenki aldarrikatu behar ditugu. Palestina, Irlanda eta beste hainbat lekutan bezala, borrokaren bidetik soilik lortuko dugu duintasunean eta justizian oinarritutako bizimodu aske eta paketsua.

"ARALAR" ESZISIOA: tximistak eta tormobek antzemandak, batzuk ezker abertzalearen untzia uztea erabaki dute. Heldu den ekaitza saihestu nahirik, alderdi politiko berria sortu dute. Ezker abertzalean jarraituko dugunontzat uzten dute zaparrada osoa, ez-demokrata, intolerante eta halako etiketak jartzen dizkiguten horiekin bat eginik. Fenomeno hau ezker abertzalean ez da berria, bere garaian EUSKADIKO EZKERRAK politika bera egin baitzuen. Alderdi honek bere azken urteetako ibilbidea Madrilgo Gobernuaren eskutik egin zuen, bere lan guztia presoek eta ezker abertzaleak burua makur zezaten bultzatzera mugatu zelarik.

EUSKAL HERRIA ASKATUKO KIDE BATZUK

Leitza, 2002ko ekainean

AURKIKUNTZA PREHISTORIKO "BERRIAK" LEITZAN



Nahiz eta Leitza ongi xamar ezagutzen genuela uste, aurkikuntza prehistorikoei dagokienez, oraindik ere sorpresa ederrak har ditzakegula ikusi da. Izan ere, azken bi urteotan, duela milaka urte ingurutatik bizitu ziren arbasoek egindako eta orain arte ezagutzen ez ziren monumentu "berriak" aurkitu dira Leitzako mendian. Bada ez bada, trikuharriak, garai bateko gizakiek hildakoak ehorzteko eraikitako harrizko monumentuak direla gogoratuko dugu. Harrespilak ere, hileta-oroigarriak dira, eta lurrean tente eta borobila osatuz jarritako harriz osatuak daude. Aurkitu diren azkenak aipatu aurretik, ikus ditzagun iadanik ezagunak zirenak:

- Urdolako harrespilak (edo kromletxak), gaur larrea dagoen lekuan daude.
- Mendibilko trikuharria. Mendibilko kaskotik oso hurbil. Club Vasco de Camping-eko kideek aurkitu zuten 1981.ean.

- Errolle gaineko trikuharria. Mendibiletik San Fermin aldera, Errutizko bordako ondoan dago eta Jose Migel Elosegik aurkitu zuen 1982.ean.
- Biuztaingo trikuharri eta tumuloa. Baztalarko atzekaldean, Leitzalarre aldera. Barandiaranek aurkituak 1920.ean. Ez dira oso nabarmenak.
- Hauez gain, aspalditik ezaguna da Urepeleko tumuloa (aintzinako gizakiek egindako harripila) eta zehazki zer den oso garbi ez dagoen aintzinako harripila bat Arramiako lepoaren inguruan.

Esan bezala ordea, azken bi urteotan monumentu berriak aurkitu dituzte. Egia esan, aurkikuntza hauek ez dira kasualitatez egin, Aranzadi eta Gorostiko adituak tartean ziren eta. Jende hau, urteetan zehar ibili da Euskal Herriko mendietan barrena monumentu megalitikoaren bila, eta Leitzan bezala, Berueten, Huitzin, eta beste hainbat lekutan ere aurkitu

Tiburtzio Donearen pestak

dituzte. Seguruenik, leitzarren bat ohartua izanen zen harri berezi hauetaz, baina zer ziren jakin ez, eta horregatik pasa izanen zaizkigu oharkabea. Dena dela, hainbat urteetan bertako inor ohartu ez bada, monumentu hauek oso nabarmenak ez zirelako izan da. Hala eta guztiz ere, aurkitutako harriak bide ezagunetatik oso hurbil zeuden, eta bakarren bat, nabarmen xamarra da. Hona hemen hauen izena eta deskribapena:

- Losarrobietako trikuharria. 2000. urteko otsailean aurkitu zuten Aranzadiko bazkideek. Pastaingo bordatik oso hurbil dago, 40 bat metrora, eta bideak, neurri batean monumentua urratu du. Dena dela, garbi-garbian dago eta nabarmen xamarra da.
- Karakoletako trikuharria. Iruso aldean dago, Txara aldera, Gazpillotxikiko bordaren gainekaldean. Elektrizidadeko poste baten ondoan dago, hariztiaren mugan, eta hau ere, zertxobait urratua dagoen arren, nabaritzeko modukoa da. Aranzadikoek aurkitu zuten 2001eko otsailean.
- Sarasain Bizkarreko harrespila. Behar bada, dagoen lekuan egoteagatik, harrigarriena. Nola pasa ote da orain arte oharkabea? Auskalo! Nolanahi ere, errepidearen ondo-ondoan dago eta 2001eko martxoan aurkitu zuten Aranzadi eta Gorostiko kideek. Usategieta aldera igotzen den pista hartu, eta basora sartu bezain laister, eskuinetara jo behar da, 20 bat metro. Bidea pasatzen zaio erditik, eta erdi urratua dago, baina erne begiratuta, bueltan bueltan jarritako harriak ederki bereiz daitezke. Harriren bat tente dago, eta oso nabarmena da.
- Azkenik, oso ikusgarriak ez badira ere, Txara eta Baztarlan tumulo bana aurkitu dute.

Horra hor bada, Leitzako ondare prehistorikoa aberastu duen aurkikuntza berriak. Bistan denez, neurri batean urratuak izan dira, baina oraindik ere duten balioa mantentzen dutela azpimarratu behar da. Gure eskuetan dago milaka urtez iraun duten monumentu hauek zaintzea, ondorengoek ere ezagutzeko aukera izan dezaten.

MIGEL MARI

Leitzako jaiak 2002

BERTSO BERRIAK ESKUZ BANAKAKO FINALARI JARRIAK (IPARRAGIRREREN DOINUA)

Bi milla eta bigarren urten San Juan bezpera arratsez
San Tiburtziotan bezela geunden Leitzen parranda egiñez
pilotako finala
guretzat mundiala
Abel txapeldun giñunez
pesta-programan atera dugu, hain pozgarri izan zenez

Herri osoa begira zegoen seirehun bat leitzar frontonen
eta prest kantxan bi finalistak gure Abel eta Ruben
Belokik "balazoa"
Barriolak jaso
borroka latza ondoren
bikain jokatu, Belokin hutsez, Abel aurretik jarri zen

Nahiz partidue gogor hasi zen, leitzarra kantxan eroso
ederki asko eutsi zituen Rubenen zenbait eraso
gozatuz aldiero
bi paretak jo gero
ta Rubenek ezin jaso
bat eta lau urdiñe aurretik, Abel ongi ai zen oso

Aipatu zuten leitzarra zela izan ezpatadantzari
ta kantxan zehar azkar munitzea errexa itten berari
pilotazo abillez
jokaldi borobillez
onena nor zen nabari
ta hasieran binako zena, banako bihurtzen ari

Bistakoa zen Burlatakoa eziñean ari zela
leitzarra berriz, bikain ari zen txapeldun haundik bezela
Abelek jo atzera
errebote aldera
Rubenek kolpe ustela
bi ta hamabost Abelen alde, eta bertago zapela

Tiburtzio Donearen pestak

Txapeldun batek irabazteko behar ditu hainbat zimendu
ta altzateko botilleroa behar genuke omendu
hain da tekniko ona
ta dakien gizona
kirolarien ukendu
zurgiñ zena psikologo da ta, kontsulta jarri omen du

Ohiu batean jende guztia hura hots ta oihartzuna
Leitzako zalek marru batean pasatu giñun eguna
Abel fedez beteta
sakez sei tanto eta
iñork espero ez zuna
hogeitabi ta hiru azkenen, Barriola txapelduna!

Momentu hartan aurkitzen giñen une eder ta gozoan
ta txapeldunak zorionean jende ugari gogoan
nahiz lagun maiteenak
izarretan daudenak
ez zitun bere alboan
zapelan berri eraman zien salto egiterakoan

Pillotazale guztik txaloka ta frontona tente jarri
eta Abelek eskuk luzatuz Ruben ondora ekarri
a ze gizon pare
bakoitzari berea
biak jator izugarri
hizketan hortxe bukatu zuten loreak botaz elkarri

Zapela burun jarri zioten kopa bat eman ere bai
ta motikoa zoriontzea besterik ez genuen nahi
meritue berea
eta pozik jendea
aspaldi ez bezain alai
hain poz haundiak ez bait zaizkigu Leitzera iristen noiznahi

Ta bukatzeko utzi dezagun manomanista albora
eta Abelen beste bi zapel ekarri behar gogora
gehiturik besteenak
Bengoetxetarrenak
txapelen demanda gora
martxa honetan zapel-fabrika Leitzen jarri beharkoda

Leitzako jaiak 2002

ARTOA ETA GARIE ETA ERROTAK ITXIK

Lehenago artametak nonnahi izaten ziren. Etxe inguruko alorrak arta metaz yosik izaten ziren eta landan ere bai. Leku batzutan burutxe egiten zuten, baina gehienetan artoak ebaki eta metatu egiten zituzten. Orain Artxikoneko bordan bakarra ikusten dire artametak.

Alorra zakar aretu, zakarrak bildu eta erreloa egin. Lurre irauli, zoye hautsi, berriz aretu, alperra pasatu eta artoa eriñ. Handik bi edo hiru egunera banabarrak eriñ arto tarten. Erbillez soskorra yo eta goroztu. Bakandu eta yorratu. Harbi hazie bota eta bigarren yorra eman. Udazkenean ebaki eta metatu. Artametak moztu (burua kendu lastoari) eta etxera eraman. Etxean zuritu eta ganbaran zabaldu. Hauek dire artoaren lanak.

Gero artapurten yo, garbittu eta arkan edo zakutan sartu. Errebue edo gaitzerue artoz bete, erre-sakie pasatu, zakue bete eta errotara eraman asto gañen. Errotan lakan aldera ihotzen zuten.

Lehenago layez iraultzen zuten lurre. Aurrena nabarrak egin, lau-zoyekoak edo bost-zoyekoak (hau da, lau lagun edo bost layen aritzeko), eta gero layatu. Layek sartu eta denak bat baten iraultzen zuten zoye aurrera. Layarin aurrekoa izaten zen aitzurrekin traban gelditzen ziren zohi puskek kentzen zituena.



Gure eskuñetik ezkerrera: Astaitzagako Bernardo, Joan Sasa, Martikoneko Pako eta Garagartzako Pako.



Laiatzeko nabarra egiten

Etxe baten layarin aurreko neska yarri zen. Layarik ari ziren esaten yende biuñek izaten direla, badirela batzuk hanka lepa gañetik pasatzen dutenak. Layarik hamaiketakoak egitekoan eta kontu asko kontatzen zuten eta neska harrituta zegoen entzuten. Gero layarik egarritu eta neska yoan zen iturrirre ureta. Yoan zen eta neska ageri ez. Layarik izerdi patsetan, egarrik itto beharren eta neskarik etortzen ez. Zer gertatzen ote zitzion eta yoan ziren iturrirre eta hantxe zegoen neska hanka lepo gañetik pasatu eta libratzen ez zela.

Garie ere etxero egiten zen. Gari iriñarekin etxeko laben ubie eta behiko suen opea egiten zen. Opea eta ubie egiteko oreari orantza nahasten zitzion.

Garie eritten zen urtero alorraren leku desberdinetan: aurten sail baten, hurrengo urten beste sail baten eta hola. Garie uztan ebakitzen zen eta haren ondoan arbie ereiten zen. Honi esaten zitzion galondoa.

Zerbaiti buruz hitz egiterakoan esaten zen: urte hartan arbie alor-goyenen giñun, edo alor-barrenen giñun...Edo: urte hartan garie etxen garealden giñun...

Artoa erre eta arta-zopak eta marrekukue yanez eta gari iriñez egindako ubie edo opea yanez bizitzen zen yendea. Baina gerrondoan razionamentue yarri zuten eta gainera errotak itxi

Tiburtzio Donearen pestak



Gure eskuñetik ezkerrera: Astaitzagako Bernardo, Joan Sasa, Martikoneko Pako eta Garagartzako Pako.

eta gosea nagusitu. Orain panaderik ixtea bezala zen ordun errotak ixtea.

Leitzen baziren hiru errota : Goikoerrota, Erdikoerrota (Olaberrie) eta Azpikoerrota. Baina itxita eta ezin artorik edo garirik iho.

Erreka-zoko izkutuetan ziren errotak ihotzen zuten kontrabandoz eta hara yoaten zen yendea gabez.

Ikus dezagun zer dion Mikoneko Joanjoxek :

Gerrondoa huen eta hemendik illunabarren yoan giñozen Joanito Zabalonekoa, Joanito Tesana eta ni. Nek beatzin bat urte netien. Joanmarin etxetik astoa hartu eta Ezkurreko errotara yoan giñozen eta han nehiko zakue bazeukela bi gautarako eta etziguela ihoko. Handik yoan giñozen Eratsungora eta han e berdin, bazeukela nehikoa. Handik Salditse eta han goizeko bostak aldeako ihoko ziguela. Errota txar bat hantxe gau guzin ttalaka, ttalaka, ttalaka... Eurrezko zubi txar bat mehar meharra huen eta pasatu itte huen gañea han astoa. Astoari arto pixkoat zakutik aterata eman giñeyoan. Gero goizeko bostetan han zakue hartu eta etxera. Allatu gattok Perralekuko zea horta eta behiko zokotik pasatu giñozen eta handik atera giñozen Uztarlekuko gañea, oañ usopuestoak den horta. Eta handik Gorritzko atarie barrena Urbita. Eta Urbitatik Ziarte barrena goizeko zazpik alde

etxera. Gure ama atetan dena kezkatue goardazibiliek harrapatute kendu izan ziguela ta.

Nork bere artoa, nork bere gauze, eta ezin iho. Hue huen mixerie hue, hue huen mixeri santue. Taloa yateatik hue zen ibillie.

Leitzen baittuen errotak baño itxik. Azpikoerrotan kamiotik ekusten huen ure ateratzen eta ezin iho.

Gero hasi huen ihotzen Azpikoerrotarie. Baño beti gaordazibillen bildurrik. Gabez aitzen huen, beharko. Goizeko bostak alde arte aitzen huen ihotzen eta goatzen nak zaku iriñek ekullun nola gordetzen zittun ixtorran azpin de.

Ordun bizkarren zakue hartu eta Landa barrena yoaten giñozen Azpikoerrotara.

Utzi han gaben eta bihamonen berriz gaben ekartzten giñien. Hurrengo euneako ihotzen zien baño eunez ezin ekarri. Eta beti bildurrik, lapurretan ibilliko bagiñe bezala. Arreba Joanita eta ni ibiltzen giñozen. Joanita aurreraxeo Olaberriko hortan goardazibillik ekusten ote zun. Han zubin pasatu eta Axoarteko azpie barrena Areiko zubire eta handik etxera.

Gu ez giñozen harrapatu baño baittuen ibilliz zenak astoak eta guzi kendu emen zezkioalata. Erasotearrak Aizarozko errota yoaten hittuen.



Gure eskuñetik ezkerrera: Astaitzagako Bernardo, Joan Sasa, Martikoneko Pako eta Garagartzako Pako.

Leitzako jaiak 2002

Guk gari iriñekin itten giñien supekoa. Artoa nola itten da, gise horta. Lengo ubin masa puskeat uzten huen mintzen eta harekin itte huen orantza eta honek harrotzen zien ubie.


Patata ta baba ta horik asko Berutatik etortzen ittuen Putzenborda barrena. Eta eliz atarin in behar huen geldittu eta bakarren batek bijilatu eta bestek zakue bizkarren hartu eta pasatu. Yakiñe, astoa mantsoa baitzen. Hazitteako patata ekartzzen e etzien uzten.

Ni ekusie nak estaziora yoan treneta eta trenen nola etortzen zeen gipuzkoano emakume gaxo batzuk. Holaxeko pakete koxkorra patata ta baba ta banabarra Larraunen edo altzuen lekun erosi ta ekartzen zien. Goardazibiliek kendu eta goardazibilien hartzen partitzen zien. Gero goardazibiliek sobra zuena Maria Jesus Periko Zaldarren amari saltzen zezkeyoan. Eta Maria Jesusek berriz gipuzkoanoari. Hiru aldiz kenduteko paketek izandu omenittuen koartelen.

Estazioan paketek eta saskik kendu emakume gaxoai eta almagazeko atene uzten zetien. Eta atsoak nearrez. Behin ekusi nien emakume bat trenen azpin burue sartu eta ez zula ateako, eta ez atea-tzen gañea iñorke. "Nek ume gaxoak hiltzen dauzket", esaten zien. "Yo tengo los hijos muriendo de hambre. Yo sin nada no puedo ir, no puedo ir". Hantxe yoan huen hutsik.

Baittuen emakume gorrak. Beharko gorrak izan. Intzien batek, trenak yo zien tutue eta abitu huen eta hartzeik kenduteko saskie eta trenen atzeneko bagoneko balkonzillora iyo huen eta goardazibiliei behatzakin "toma, toma, toma" keñu itten zeyoan. Eta goardazibiliek fusille patu zien apuntzen eta "te voy a matar". Ordun nolana hiri tiratzen zien tiroa baño etzien tiratu. Eta hantxe yoan huen emakumea bere zumitzekiko saskikin. Begin bixten zeuket oañyik bi tapako saski hure.

OHARRA.-Layarin erretratoak Tomas Martikok atera zituen 1979. urtean.



Artxikonoko borda



Gure eskuñetik ezkerre: Astaitzagako Bernardo, Joan Sasa, Martikoneko Pako eta Garagartzako Pako. Layarin aurrekoa: Goibordako Bernardino.

AZINDAN SUME

Azindak errutire eraman, saldute edo bestela, eta berriz etxera etorri izandu direla gauze yakiñe da. Ona hemen gertakari batzuk:

BEHORRAK ETORRI ETA EKAITZE

Pastaingoak behorrak saldu zituzten Frantzire eta handik denboran buruta Pastain ziztularie beyek yezten ari zela behorrak irrintzike. Yoantzen ikustera eta Frantzire saldu zituzten behorrak ekulluko ate-leakumetik buruk sartute zeuden. Ondoren mundimunduko ekaitze egin zuen. (Pastingo Joanek esana).

AUZMENDITIK BORDABERRIRE

Zerrikumea erosi giñun Bordaberritik. Nek ekarri nun gorozetako saskin sartute eta gañetik zakue patu eta liztekin ongi lotue zakue, zerrikumea atera etzedin. Etxeko zerrikumeta bota giñun. Hurrengo eunen yoan giñen yana emattea eta zerrikumea falta. Hasi giñen bille baztar guzik ekusten eta hontan gabiltzela Bordaberritik abisoa, han zela zerrikumea. (Auzmendiko Fermiñek esana).

BEYE ETXERA ZILA HARRAPATU

Astaitzagakoak beye erosi zuten Larraundik (ez naiz gogoratzen zien herritatik) Egun baten atera zuten atarire ure edanaztera eta beyek alde egin. Astaitzagako Joxemartin eta Benardo Uitzin ari ziren basoan eta gabez etxera zetozela Uitziko gañen egin zuten topo beyekin eta ekarri zuten etxera.

ZAKURRE BAIONATIK ASTEASURE

Gure Asteasuko attuna itzaye huen eta bazien zakur bat "Ttiki" izena zuna. Zakur honek arrultzek yaten zetien baño hiltzea pena ematten zeyoan.

Tratalari frantzesak irik erosi zetien Tolosan, Baionan Iri-apustue yokatzeko gure attuna itzai zela. Gure attunak eaman zien iri-parea Tolosatik Hendaya oñez eta handik Baiona treneko bagoen. Eta berekin eaman zien "Ttiki" zakurre. Yende asko bildu omen huen iri-apustue ekustea. Gure attunak zinte batez galdu zien. Bideko gastuk patu eta gañea bost duro eman zezkeyoan tratalarik. Garai hatako diru asko.

Zakurre irikin baten hantxe Baionako ekullun utzi eta etorri huen gure attuna etxera.

Handik hamabost eunea etorri huen zakurre Baionatik Asteasure, hanka azpik denak odoletan zittula. (Mikoneko Joanjoxek esana)

ZAKUR ARDIYALEA

Hernaniko etxe baten zakurre gaben ekullun gelditzen huen baño nausik hurrengo eunen nabaritzen zien zakurre dena zurretue zeoala. Hala, eun baten zukurrei lepoan zapi zurie patu zeyoan baño gau hartan zakurre ez etxetik yoan. Kendu zeyoan zapie eta berriz e zakurre dena ler iñe zeoan. Berriz patu zeyoan zapie eta eun batzutan eondu huen yoan gabe baño halako baten yoan huen eta etorri zenen zapie dena odolue zeuken. Zakurrek errekan bere burue garbitzen zien baño zapiko odolak ezin kendu. Hernanitik Aralarre yoaten huen eta han intzien sekuleko kaskaitze. (Mikoneko Joanjoxek esana).

ARDIK BERRIZ BEREN ETXERA

Goizutako Kaperotik erosi giñozen ardik eta Kornitan eman giñoan larrera eta handik Goizuta yoantzen. Ekarki giñozen eta berriz e zizela harra-patu giñozen. (Martin Sagastibeltzak esana).

AZKENEKO ARTZA

Sasaiñen pixtatik ezkerreta badok zulo bat, hari artza-zulo esaten zeyokea. Han hil omentzien azkeneko artza, hala esaten zien gure atte zenak. (Mikoneko Joanjoxek esana).

ORENDAINDIK ARRARATSE

Arrastar batek Beastegire saldu zun behorra eta Beastigiarrak Orendaine saldu zun. Orendaingoak Aralarre bota zun behorra eta hurrengo negureko behorra falta. Non ote zen eta behorra Arraratse yoana. (Errementaneko Mielek esana).

AZPIROTZTIK ARTXULORA

Gure osaba Miel Añtoniok Sestoaiñenbordatik erosi zittun ardik. Gero nek erosi nekion osabari ardi horitatik 68 eta eaman nittun Azpirotze. Handik denbo pixkoatea bi ardi falta. Lekunberriko pestetan bi Berutar ekusi nittun eta galdetu nioan : bi ardi falta zetit, bat zintzarrikin eta bestea kulunke kozkor batekin, eskuñeko belarrin punte motza eta atzetik pike, ekusi al dittuzue? Eta esan zideen : Bai, Artxulon zebiltzek Berutako Itxolako ardikin. Etorri nintzen eta eaman nittun Azpirotze. (Errementaneko Mielek esana).

ATERALDIAK

GOIKOAK BEHIKOAREKIN

Senar-emazteak haserretu ziren eta elkarri asmahalak esan zizkionten. Oihu eta zalaparta ubari bazen etxe hartan. Egune yoan eta egune etorri ez zegoen sosegurik. Egunez hitzik gabe eta gaben obero yoan eta andrea epurdie emanda gizonari.

Halako baten andrea ere "gosetu" zen eta oben yarri zen gizonari begire eta esan zion:

-Goikoak zer ekusteko dauke behikoarekin?

BAKOITZEK BERE MUTURRE

Joxe argi-mezara etortzen zen eta mezondoan usualez ase eta egun guzie yokoan aritzen zen. Erdie eta erdie yokatuz eta desairea eta palda egun guzie tabernan botatzen zuen. Alporja gaitze zen. Gero beye zezenetara eraman behar eta dirurik ez. Etxe huts ger huts. Maria, andrea, gaztain iñurrie baño muturre luzegoarekin eta senarra danborea baño beltzagoko muturrarekin, elkarri aitzakie emanaz. Egune yoan eta egune etorri hola. Pakeak egin behar zituztela eta yoan ziren gizonetara (yustizira):

Joxek.-Ongi zere muturre dozo zok, Maria.

Mariak.-Zok bestena al dozo, Joxe?

ASTAITZ

Elduaíen

Martín José Iraola Etorbidea, 8 - 3ª izda. • Teléf. / Fax. 943 67 00 52 • Tolosa

Kondeko Aldapa, 30 • Teléf. / Fax. 943 67 47 33 • Tolosa


Pablo Mutiozabal, 2 - 1.ª planta • Teléf. / fax. 943 37 27 81 • Lasarte

Nafarro Etorbidea, 12 • Teléf. / Fax. 943 65 01 77 • Tolosa

Villa Ixas-Lore

Avda. Infanta Cristina, 15 (Ondarreta) • Teléf. / Fax. 943 31 07 53 • S. Sebastián


Elbarrena Auzoa, 20 • Teléf. / Fax. 948 51 06 35 • Leiza (Nabarra)



Hizkuntz Eskola
Academia de Idiomas
Elduaíen
School of Languages

With compliments and many thanks

- Elduaíen hizkuntz eskolak ingeles ikastaroak eskeintzen dizkizue oso kualifikatuak eta esperientzi duen irakasleekin.
- 25 urtetako irakaskuntza ondoren, hizkuntz bat ere labur batean ikastea proposatzen dizuegu, era atsegina eta arin batetan, ikaslearengan gogo eta interes handi bat eraginaz.
- Ikasleak beren azagueraren arabera maila desberdinetan banatuak izaten dira.
- Azterketa ofizialak gainditzeko prestatzen dugu, adibidez:
 - Hizkuntza eskola ofiziala - First certificate, pet advanced eta proficiency -
 - Trinity collegeko examinak.
 - Britaniar, alemaniar merkatal kamarak, etab.
 - Amerikar unibertsitateak, Toefl.
- Entrepresetarako klase bereziak.
- Haurrentzat klase bereziak (6 urtetik aurrera).
- Elduaíen hizkuntz eskola zuen eskuetan geratzen da edozein kontsultarako.




LEITZA GARAJEA NEKAZARI TAILERRA

Da denok kategoriko pestak pasatzen ditugun

Amazabal, 29 - Telf. 948 51 04 66 - LEITZA
Elizaren atzealdean - Telf. 943 68 35 42 - BERASTEGI
ALFONSO EL BATALLADOR 3 - Telf. 948 27 97 02

Zurezko Lanak

Erramun Astibia - 626/063 352
Amazabal kalea, 14 3ªB
Leitza (Nafarroa)
Tel. 948/510 503



Klase guztietako egur lanak: ateak, lehioak, armarioak, tarima josi eta barniza edo argizari naturala eman, teilatuak eta estrukturak konpondu...

Pesta onak pasa

Aupa Tiburtzio

OIALDE TABERNA

- BAZKARIAK, BAZKALURREKOAK ETA OTARTEKOAK
- KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 77 LEITZA

"GAZTETXO"

Goxotegi eta jolas lekua

Jai zoriontsuak opa dirkizue

IMELDA LARRAZ

Estankoa, janari denda etabar.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

PLAZA AUTOESKOLA ASEGURUAK

Pesta onak pasa ditzaizuela

Huarte Gotzaia, 8 - LEITZA
Tel. 948 51 03 38

LEITZELARREA, S.L.

Aroztegia, metal zurgindegia (ateak, barandilak,...)

Landa Poligonoa, Tel. 948 51 05 98

31880 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

GARZIARENA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Eibarren, 72 • Tel. 948 51 05 90 • LEITZA

BIKOITZ TABERNA

PINTXOAK • OTARTEKOAK
PASTELAK • TARTAK
ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU

Eibarren, 16 • Tel. 948 51 00 72 - LEITZA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

EROSLE SUPERMERKATUA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 07 - 948 61 06 57 • LEITZA

LEITZA ERAIKUNTZAK

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Patxi Arrazola, 14
Tel. 948 61 09 27 - 948 61 09 34



LEIZA
MANDRILADORA

Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 51 06 00 - 948 51 06 01
Faxa 948 51 06 02

Jai zoriontsuak opa dirkizue

TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dirkizue




FOTO ULAZIA

Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
Tel. 948 18 33 01

Jai zoriontsuak opa dirkizue



ADUR
TABERNA

- Otartekoak ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
 - Olagarroa
 - Grabak
 - Ziztorra sagardotan

Elbarren, 16 - LETZA
Tel. 948 61 08 64

Jai zoriontsuak opa dirkizue

LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Patxi Arrazola LEITZA

ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Bide onde etxea, ARESO • San Miguel, 2 - LEITZA
Tel. 948-510153 - 610682 • Mugikorra: 689-701557
Larrialdiak: 948-271020



Elbarren, 15
Tel. 948 51 01 46
Fax 948 51 01 46
LEITZA

PRENTSA • TESTU LIBURUAK • OPARIAK
PLASTIFIKATZEAK • ENKUADERNATZEAK
INPRENTA LANAK • FOTOKOPIAK

Jai zoriontsuak opa dirkizue

GASOLINERA DE LEIZA

VDA. DE RAFAEL MUGICA

Teléfono 948 51 00 57

LANDA TABERNA



Jai zoriontsuak opa dirkizue

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15

SAGASTIBELTZA ETA ARTOLA ERAIKUNTZAK

Era guzitako igeltsero lanak
Elbarren 86, 2.º ezker
Tels. 948 51 02 65 - 948 61 07 24
Jai zoriontsuak opa dirkizue

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta
Umeentzako jantziak

Elbarren. 32 • **LEITZA**
Tels. 948 51 05 58 - 51 04 77

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAINKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak
Jai zoriontsuak opa dirkizue

Telf-ak 948 51 02 eta 948 51 03 74
LEITZA

IZOZTUEN ETXEA CASA DE CONGELADOS

AMPARO ETA KATI
Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y
mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elbarrén, 80 • Tel. 948 61 08 85 • 31880 **LEITZA**

JOVIZU S.L. EMBALAJES

Pesta onak opa dirkizue

Leitzelarreko errepidea, 1. km.
Tel. 948 51 00 53

J.M.HERNANDORENA

BURDINDEGIA - GARBIGARRIAK
OPARIDENDA - GARRAIOAK

Pesta onak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 55

JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia
Etxeko txistorra

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 03 77 LEITZA
Tel. 948 68 30 42 BERASTEGI

ORAIN ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dirkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Egurki Uleapaindegia

Asun eta Lidia

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elbarren, 34 - 1. A
Tel. 948 61 06 49 LEITZA (Nafarroa)



POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

AISLAN - LEITZA, S.L.

TELF. 948 51 07 17 - MUGIKORRA 689 800 371
LEITZELARREKO ERREPIDEA, 6 - 31880 LEITZA



QUIROMASAJE
SOLARIUM

Pili Villabona Saralegui

C/ Elbarren, 36-3° B - Tfno. 948 51 06 94 - 31880 **LEITZA**

TALLERES LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de automóviles,
maquinas agrícolas, bicicletas y motos.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Gorritarán, 41 • Tel. 948 51 04 04
LEITZA

TROK

-ZAPATA KONPONKETA
-LARRUGINTZA

Ongi pasatu, asko dantzatu
eta zapatak gastatu

San Jose plaza 5 LEITZA



VANPAC, S.A.

(Vasco Navarra de Papel y cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA


Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61

JUBILATUEN TABERNA

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Tel. 948 61 09 35



MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN
MONTATZE ETA KONPONKETA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

LANDA INDUSTRIALDEA - PAB. 9B, 10B
Tel. 639 134464 - 629 831535 - 629 823191

EXCAVACIONES JOARBE S.L.

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Obispo Huarte 8
Tel/Fax.: 948 61 09 71
Mugikorra: 629 21 90 68

IRATI TERMİK

C/ELGOYEN, 4 LEITZA - NAVARRA
Tel: 669 396 656

Jose Antonio Gómez y Otros


*Ventanas Aluminio y PVC
Aluminio Rotura Puente Térmico
Cerramientos Balcones, Oficinas y Divisiones*



TORREA ETXEA

Tfnoa.: 948 61 09 09

GOSARI, ETA AFARI,
EDERRAK



EUSKAL MARTXA
ETA BORROKA
ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE

**BEREZITASUNA:
URDAITEGIAN ETA FRUTERIAN**



*Pesta onak
Pasa ditrazuela*

Patxi Arrazola, 9 Tel. 943 51 05 63



ZURGINDEGIA
ATEAK, LEHIOAK, TARIMA ETA
BESTELAKO ZURGIN-LAN GUZTIAK

GOIKO ERROTA • ☎ 948 510402 • Mugi.: 609 067123

Pesta onak pasa

LOREA
Ileapaindegia
eta Solarium-a
*Fai zoriontsuak
opa dirzikizue*

Tel. 948 61 09 07 - LEITZA

**JOSE MARIA
ETXEBERRIA**
GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Fai onak opa dirzikizue

Tel. 948 51 02 82 • LEITZA

**KORNIETA
ELKARTEA**

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

LEITZA



*Sucesiones de
José GOMEZ, S.L.*

*Fai Zoriontsuak
opa dirzikizue* OIHALAK - TEJIDOS

C/. Ergoien, 30 • Tel. 948 51 01 30 • 31880 LEITZA



**URTO
KARROZERIA**
TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
Jesús Azurmendi Jauregi
Fai zoriontsuak opa dirzikizuegu

Kamineros etxea BERASTEGI
Telf-ak. 943 68 34 99 - 948 61 06 64

MAPFRE
MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Tel. 948 51 04 99 LEITZA

MERTZERIA DENONTZAT
Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa


Pesta onak pasa ditrazuela

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA

**OHIANA
JANARIDENDA**

Pesta goxo batzuk opa dirzikizuegu

Tel. 948 51 04 28 LEITZA



Zurgindegia Orokorrean.
Sukaldeko altzariak.
Krisalturgia.

ASTIZ anaiak ZURGINDEGIA
Pol. Landa P-13, Tel. 948 610 606 // 948 510 285
31.880 LEITZA

Pesta onak opa dirzikizue



Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 948 51 04 67 - LEITZA

DENAUTO SAGASPER TAILERA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluseder Industrialdea
Poligono Industrial Eluseder

Telefonoa 948 510 610
Faxa 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

TELEFONOAK

Bulegoa : 948 61 06 77

Mugikorra: 608 77 68 99



Gustua baduzu, hementxe gaituzu

Alto de Leitza • 31877 LEITZA (Navarra)

Tel. 948 51 01 25 • Fax 948 61 09 65

Cocina selecta - Comidas de empresa

Bodas y banquetes - Comuniones y bautizos

Amplios comedores - Salones

Amplio parking - Piscina

"GARBI"

Garbigaidenda
eta Usaidenda

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 01 73

LIZARRAGA

HARATEGIA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 510 262

ARAKINDEGIA

JATETXEA

Tel. 948 51 00 52

Jai zoriontsuak opa dirkizue



PRENTSA
TESTU LIBURUAK
OPARIAK
INPRENTA LANAK
ESKOLAKO GAIAK

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elbarren kalea

Tel/Faxa 948 510 262

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elgoien, 1 LEITZA

GAZTAÑAGA TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 61 07 08

CONSTRUCCIONES OLIVEIRA-VICENTE

Les desea felices fiestas

C/. Amazabal, 17 - 3.ºB
Tfno.: 948 51 05 16
LEITZA (NAVARRA)

PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

Tel. 948 51 01 64

Jai zoriontsuak opa dirkizue

HERBODIETETICA BELARRA

Janari denda
Elbarren, 35 • Tel. 948 51 01 92
LEITZA

Jai zoriontsuak opa dirkizue, zorionak

Pinturas MELO

PINTURA GENERAL
Tel. 948 51 05 35 - LEITZA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

ARDOTEGIA
LEITZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA INSALUS, SAN MIGUEL
GARAGARDOA ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

Fai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 03 33



*Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzaizuela*

Tel. 948 51 01 35 LEITZA

**PELUQUERÍA
EDURNE**

*Fai zoriontsuak
opa dirkizue*

Elbarren, 35 - Tel. 630 91 67 58
31880 LEITZA (navarra)

**TXAPA PINTURA LEITZA
KARROZERIA**

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa
eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien
konponketa (bankada).

Leitze - larreko errepidean LEITZA
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

**ETXE-TRESNAK S.L.
ELEKTROGAILUAK**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

*Fai zoriontsuak opa
dirkizue*

TEI. 948 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA



**MUSUNZAR
OSTATUA
JATETXEA**

*Fai zoriontsuak
opa dirkizue*

Elbarren Kalea, 14
☎ 948 51 06 07 - 948 51 04 75
LEITZA (Nafarroa)

SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA
Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak
Bazkariak eta afariak

Fai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 61 06 37 LEITZA



*Lisain
Hespañdegia*

MAKILLAJE • DEPILAZIO
MANIKURA • SOLARIUM

Elbarren kalea, 16 - 1.º - Tel. 948 610 852 - LEITZA

ANA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak eta izoztuak

Fai zoriontsuak opa dirkizue

Urrutzikina: 948 61 06 81



PAGOZELAY GOIZABAL

ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA • LANDA ETXEA 1 SOLAIRUA
31880 LEITZA • NAFARROA
TEL. 948 510 346 • FAXA 948 610 962



OKINDEGIA - GOZOTEGIA

EGYZKITZA



B.º Erreka, 3 bajo - Telef. 948 51 06 14 LEITZA
Elbarren, 35 -Telef. 948 61 06 46 LEITZA
San Frantzisko, 24 - Telef. 943 65 00 41 TOLOSA

**ILEAPAINDEGIA
ARANTXA**

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Obispo Huarte, 8 tño. 948 61 09 31
31880 LEITZA (Navarra)

TXARAGORRI



**ITURGINTZA
FONTANERIA**

Elbarren, 56
(Martikonea)


Leitza. Mobile
649 853 440

SAGARDOTEGIA - SIDRERIA

ERREKA
ERRETEGIA



B.º Erreka - Tel. 948 51 06 25 - LEITZA (Navarra)
(Estamos en la salida de la autovía dirección Leitza)



MARGARI

Teléf. Móvil 608 87 30 16
Teléf. Domicilio 948 61 07 01

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Taxia 24 orduko Zerbitzua
Servicio de Taxi 24 horas

31880 LEITZA (Navarra)



ARDI-GAZTA

Gorritz

*Pesta alaiak pasa ditragun
errepresaliatuak gogoan ditugula*

XABIER SESTORAIN • GORRITZ BASERRIA • LEITZA 948 51 05 70



IRUSO

TABERNA
JATETXEA

Txeju Gernua eta Garbiñe Aleman

Leitzalarreko Bidean - Tel. 948 39 70 35 - 31880 LEITZA

EXCAVACIONES Y CONSTRUCCIONES

Gorritz S.L.

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

ERAIKUNTZAK

GORRITZ BASERRIA. 31880 LEITZA.
TLF: 610 212690, ETXEKOA 948 510570

BULDAIN

AGENTZIA INMOBILIARIOA

*Festa eder hauetan zuen nahiak
bete ditzaizuen opa dirzuet*

Telefonoa 948 51 05 34 Amazabal 37, behea
Tel. mugikorra 649 47 66 15 LEITZA

NEKANE TABERNA

Goiz goizetik irekia
Gosariak, pintxoak, bokatak...

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 03 28 LEITZA



Distribuciones **ARRARAS** S.L.

EDARI BANATZAILEA

Viña Alcorta, Keler, Kas, Patxaran La Navarra
Polig. Ind. Eluseder - ARESO (Nafarroa)
Tel. Oficina 948 61 08 88 - Almacén 948 51 05 99

AZPIROZ ETXEA **JANTZI DENDA**

*Dai zoriontsuak
opa dirkizue*

Tel. 948 51 02 46 LEITZA

Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.

Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

J.Sarasua

LEITZAKO **EUSKALTEGIA**

Tel. 948 610 776



*Dai zoriontsuak
opa dirkizue*

Trat. faciales
Trat. corporales
Depilación
(C. Caliente)
(C. fría)
Maquillaje
Masajes
Manicura
Pedicura, etc.

C/ Manuel Lasarte, 5 bajo
Tfno. 948 51 07 08 31880 LEIZA

HYDRA GESPORT

gestión deportiva

LEITZAKO KIROLDEGIA




NAFARROAKO RURAL KUTXA CAJA RURAL DE NAVARRA

Pesta onak pasa

LEITZAKO BULEGOA

ELBARREN, 35

Faxa eta Telf.: 948 60 735



Pesta onak pasa

ZORTZIKO LABETXEA KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA

- Ogi egin berria
- Pentsa, Gosari goxo goxoa (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapore guztietako kukurutxuzko izozkiak

Elbarren 20 Tfnoa: 948 510 720

Leitzako Udalak



pesta onak

opa dizkizue




PESTA ALAIAK

OPA BITARTEAN,
GURE ERAKUSKETA
IKUS DEZAZUN
KONBIDATZEN ZAITUGU



IKUSTAZU OBRAN HASI
BAINO LEHEN
ZURE KOMONAREN
PROIEKTOR
ORDENAGAILUAN!



ITURGINTZA LANAK
KALEFAKZIOA ETA GASA
KERAMIKA

gaztelu

LANDA BEHIKA INDUSTRIALDEA
31880 LEITZA

